

...eta!
Kittoa!

2019-V-24

1101 zkia.

Alkatea banintz...



MENDIKUTE

EIBARKO ALKATE





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, N° 12 - 1° - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabiak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– BAZTERTUA SENTITZEN NAIZ, 1.000 EUROKO ISUNAREKIN –

Beste urte barri bat primeran. Gure foball taldiarekin harro, eta herrixandako horrek dakarrenarekin be bai. Lehelengo maillan!

Herri bat mailla horretan egoteko gauza asko euki leikez: ekonomia, kultura, hirigintza, merkataritza, baiña horretatik hurruti gagoz. Nere partetik, eta ez noia luzatzera, merkataritzaz dihardut berbetan.

Merkataritza ona eukitzetik oso urrun gagoz Eibarran. Internetari, alokairu garestixerri, edo haundixen kompetenziari errua bota barik, Udal honek ez dau merkataritza txikixa, bertokua eta ekintzaillia babesen. Loradendan eginahalak egitten ditut egunero. Tokiz aldatu dot (Toribio Etxebarriako 5era) hobetzeko asmuarekin, nire loradenda txikixa hazi egin dalako eta aurrera egituko asmuarekin. Ez dakit zelan juango jatan datorren hillian, baiña pozik naguala esan leike.

Baiña goazen mamira. Udaberrikan gagozela-eta fakturaziñuaren zati haundixenetakua kanpoko landariek egitten da, eta horrek esan nahi dau denda barruan landare mota hori ez dala ez saltzen ez bizirauten, kanpuan egon biharra dauka-eta. Hornitzailliak esaten deste: *“Ez badozu kanpora etaratzen, Ane, ez dakazu zer egiñik eta itxi egin biharko dozu”*. Ba, zera, herri-arau bategaittik 1.000 euroko isuna jarri deste; arau horren arabera ezin ditudalako landarak kanpora etara, lurgune publikua ezin dalako erabili ez bada fa-

txadatikan bi metrotara. Barrero esango dot: herriko araua da. Osterantzian, Gipuzkuako, Espaiñiako, Frantziako eta baita Europako herri guztietan (milloi bat argazki dituzad adibide moduan) loradendetako lorak kanpokaldian ditue gaiñezka, zoragarria da... Hori bai Primeran egotia.

Lurgune publikua erabiltzeko baimena eskatu doten arren, ez deste emon. Ez naiz hasiko hamen kalera euren produktuak etaraten dabezen Eibarko hainbat denda, taberna, frutadenda... salatzen, baiña Udalak oztoporik ez detse jartzen (ez dakit baimena dakatela-ko edo Udalak ezikusixarena egitten dabelako). Nire produktua (kanpoko landarek dihardut) kalera etara bihar dot; bestela ezingo dot saldu. Hornitzaillak ez dabe ulertzen. Nire bezeruak bez. Eta nire negoziñuan etekin asko galtzen ditut. Ni neu izan naiz munizipalen esana bete ez dotena, ezin dotelako saldu etara barik. Gaiñera, egunero etxetik loradendarako bidian beste dendek etaraten dabez euren gauzak kanpora (saltzekuak dirazenak edo ez). Baiña baztertua sentitzen naiz, 1.000 euroko isunarekin.

Udal honen babesa bihar dot, nire herriko udalarena, nire jatorriko udalarena, nire lana eta denda aintzat hartu deiken. Ni ez egotia nahi dabela emoten dau, eta ez dakit zegaittik.

Ane Ojanguren

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MINPEKO.- Berbetarako traba, txarto ahoskatzea. *“Ez detsut ezebe ulertu. Minpekuakin zabiz, ala?”*. Gezurra, amarrua, iruzurra. *“Minpekua da guzurra, bateronbategaittik azpittik zeozer esatia”*.

astean esanak

“Depresio kasu baten aurrean, lehenengo gaixotasuna duzula onartu behar duzu eta horrek tratamendua baduela jakin. Baina buruko gaixotasunek oraindik estigma dute gainean, eta badira gaixoak antidepresiboak euren herritik kanpo erosten dituztenak, prostata-arazoekin sexu-disfuntzioak dituztenak gaur egun egiten ez dutena. Gainera, behin medikazioa lagata, bakarrik herenak lortzen du ondoren egonkortasuna. Beste heren bat berriro jausten da eta besteek medikazioarekin ere... larri”

(IMANOL KEREJETA, PSIKIATRA)

“Espainian konpainiarako animalia gehiago dago 15 urtetik beherako ume baino. Jendea gero eta bakartiago bizi da; hortik gero eta animalia gehiago erregistratzea. Horregatik, hirietan gero eta parke eta espazio gehiago sortzen ari dira animalien bideziki prestatuta, solte ibili daitezten edo, gutxienez, guztiontzat elkarbizitza egokiagoa izan dadin. Kopuru hori, gainera, hazten joango delako. 2018an 140.000 txakur eta katu abandonatu bazituzten ere, asko hobetu da animalien zaintzan; hala ere, asko geratzen zaigu Belgika, Herbehereak edo Erresuma Batuko mailara heltzeko. Gaur egun animalia familiako kide da”

(ARMANDO SOLIS, ALBAITARIA)

“Amodioak guztia gaintu dezakeela eta aurkako poloak elkar erakertzen dutela ez da egia. Denbora gehien irauten duten bikoteetako partaideak antzerakoak dira inteligentzia, erakargarritasun fisiko, hezkuntza-maila eta estatus sozio-ekonomikoan. Hasieratik ziren berdinak edo berdindu egin dira? Arrautza ala oiloa, zein zen lehenago? Bikoteen %22k ideario elkarezintasunarengatik banatzen da, politika kontuengatik askotan. Erabakigarriagoa da oraindik gazteen artean, ekonomiak eta ekologiak pisu nabarmena hartzen baitute. Egun jarrera feministen eta tradizionalagoen arteko talkak harreman asko apurtzen ditu”

(JUAN JOSE ZUBIETA, SOZIOLOGA)

Politikuekin bilduko dira Eskolako Agenda 21eko ikasliak



Eskolako Agenda 21 egitasmuaren barruan, herriko ikasliak udal ordezkariarekin bilduko dira datorren eguenian, 10:15etan udaletxeko pleno aretuan, ikasturtian zihar landutakuaren barri emoteko. Debabarreneko ikasliak etxian sortzen ditudun hondakiñen gaia lantzen jardun dabe aurten, gaztien artian horren inguruko konzientzia piztu, eskualdeko hondakiñen kudeaketa eza-gutzera emon eta ingurumenarekiko errespetua sustatzeko asmuarekin, eta beti be hiru pauso (murriztu, berrerabili eta birziklatu) goguan hartuta. Behin egoeriaren diagnostikua eginda, ikasliak Udaltzatarran aurkeztuko dittue etaratako ondorio eta bestelakuak, eta herri jasangarria lortzeko euren proposamenak be azalduko dittue. Urtero lez, egitasmuaren parte hartu daben ikastetxiak Udalaren, Ingurugelaren eta Debegesa garapen agenztiaren laguntasuna jaso dabe eta EuskO Jaurlaritzak diruz laguntzen dau ekimena.

Polizia-etxe eta epaitegixetako garbitzailliak protestan

lazko urrixaren 16tik, 246 egunetan greba mugagabia egitten diharduen Gipuzkoako polizia-etxe eta epaitegixetako garbitzailliak eguazten goizian Eibarko kalietan manifestaziñua egin eben sektore-rako hitzarmen duiña eskatzeko. ELA, LAB, UGT eta ESK sindikatuak aditzera emon dabenez, polizia-etxietarako hitzarmenaren iraunaldixa 2009ko abenduaren 31an amaittu egin zan eta eraikin judizialeetakua 2017ko abenduaren 31ian eta, harrez-

keru, garbitzaillien lan-baldintzak okerrera egin dabe nabarmen. Bihargiñak, bestiak beste, soldata arrakalarekin amaitzia eskatzen dabe: "Garbilenen kale garbitzailliekin alderatuta, %13ko (polizia-etxietan) eta %7ko (epaitegixetan) diferentzia daukagu. Azken 10 urtietan ez deskue soldatarik igo, ezta KPI-a be". Eusko Jaurlaritzak azpikontratatu daben zerbitzu bat dala gogora ekarritta, "erakunde publikua dan aldetik bardintasunaren alde eta soldata-tar-



tiaren kontra egitteko betekizun etikua" dakala gaiñeratu dabe bihargiñak.

Bestalde, Eibarko Udal eraikiñak garbitzen dituden andrak be hillebete honetarako mobi-

lizaziñuekin aurrera segiduko dabe eta astelehenian moziñua aurkeztuko dabe udal plenuan eta barixakuan konzentraziñua egingo dabe Untzagan, 11:30xetan.

...eta kitto! aldizkarixaren inguruko ikerketia ekaiñaren 4an aurkeztuko da Portalean

...eta kitto! astekarixa eta webgunia hobetzeko asmua-rekin, eibartarren eritxizak jasotzeko inkestak egin zittuen Aztiker soziologia ikerguniak oin dala hillebete batzuk, ...eta kitto! Euskara Elkarteak holan eskatuta. Guztira 600 inkesta egin zittuen, gehixenak telefono bittartez, eta inkestetako batzuk zuzenian etxietara juanda bete zittuen inkestatzailliak.

...eta kitto! hedabidiari buruz Aztikerrek egitten daben bigarren ikerketia da hau. Aurrekua 2008xan egin zan. Hortaz, astekarixak azken hamarkadan izandako billakaeria eza-gutzeko datuak dakaguz esku artian. Batutako datu, eritzi eta baloraziñuak herritarrokin partekatzeko ordua da oin. Aurkezpen ekitaldixa ekaiñaren 4an egingo da, 19:00etan, Por-

talea kultur etxeko areto nagusixan, eta herritar guztiendako zabalik egongo da. Hortaz, animau ezkeru, han egongo gara

zeuen zain. Eskerrak emoten detsueguz galdereri erantzunez aldizkarixa hobetzen lagundu dozen guztieri.



Eibar FT-k jai arrakastatsua egin zuen



Zapaturako prestatuta bazeguan be, Li-gakuen azken aldaketekin domekan egin zan azkenian Eibar FT-ren denboraldi amaierako jaixa. Jendiak bikain erantzun zeban eta Su Ta Gar eta Gatibuk eskindutako kontzertuak jarraitzaile kopuru mordua batu zeben Untzagan, eta askok goizaldera arte jarraitu zeben, DJ Txurruen musikia entzunaz.

autuan

SANJUANETAKO TXOSNAK

Udalak zabaldu dau San Juan jaixetan txosnak jarri nahi dittuenendako eskaeriak aurkezteko epia. Interesa dakanak Pegorara jua biharko dau eskaeria egittera eta informaziño guztia be han emongo detse. Eskaeriak egitteko epia ekaiñaren 3an, 19:00etan amaittuko da.



ARRATEKO AMARI ESKINTZA

Bixarko lora-eskintza antolatu dabe mojak Arraten: 20:00etan prozesiñuan etarako dabe Arrateko Ama, kandelak eta errosarixua lagunduta. Ondoren, 20:30xetan, santutegi barruan egingo dabe amabirjiñaren aurreko eskintza eta, amaitzeko, 21:00etan, txokolate-jana egingo dabe.

Eibarren 1.500 baietz!



ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA
www.eibar.eus



herriko kaleei begirada



URTZAILE

egilea:
 ANE XIXI LOPEZ

Dibujo Eskolarekin elkarlanean

Artxibuak "scape room" saia antolatu dau ekaiñaren 7rako

Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatuko da ekaiñaren 7xan eta, horren harira, Eibarko Udal Artxibuak "Genealogistaren hilketa" izeneko "scape room" edo abentura jolasa egingo dau egun horretan, 11:30xetan hasit-ta. Jolasaren oiñarrixan intrigazko istorio bat dago eta parte-hartzailliak hiltzaillia zein dan asmatu biharko dabe, jokuak iraungo daben 45 miñutuko tartian. Animau ezkeru, Udal Artxibuan emon leike izena, astelehenetik barixakura, 09:00etatik 15:00etara (epia maia-tzaren 31n amaittuko da).



Trafikuari eragingo detse Pagaegi inguruko biharrak



Astelehenian hasiko dittue Pagaegi kaletik Jardiñeta kalera bittartian oiñezkuen akzesibildadia hobetzeko biharrak eta, horreru lotuta, inguru horretako trafikuari eragingo detsazen hainbat aldaketa egongo dira. Pagaegi kalia, El Casco-ren atzeko aldetik Jardiñetarako sarrera bittarteko errebueltan jardungo dabe biharrian, tarte horretan daguan alda-piak eragindako trabak leuntzeko asmuarekin eta, biharrak amaitsu arte kalia moztuta egongo da, Muzategiko garajietara juateko eta anbulantziendako izan ezik. Excavaciones y Obras de Diego enpresak egingo dittu biharrak, 224.741 eurotan, eta ama-itzeko 17 asteko epia emon detse.

Zorionak Ibon!

Kordoban kartzelan daguan Ibon Muñoak 61 urte egin zittuan maiatzaren 18xan eta, bera zoriontzeko asmuarekin, lagun eta famelixakuak Untzagan argazkixa egin eben. Zorion-agurrarekin batera helarazi nahi detsen mezuari jarraituta, "datorren urteko urrixan urtengo zara espetxetik, 20 urtian giltzapetuta egon eta gero. Tarte horretan zure askatasuna behin eta barriz eskatzen segiduko do-gu, eta garbi euki senide eta lagunak zain egon garala, besarkada bero bat emoteko".



Topaketa Feministak hartuko dittue kaliak bixar

Nalua gazte feminista taldekuak Eibarko Topaketa Feministak antolatu dittue bixar-ko, hainbat belaunalditako militante feministak alkartzeko asmuarekin eta, eguna biribilitzeko, aurreko bi urtietan egin daben Ilargi Fest jaialdixarekin agurtuko dabe jardunaldixa. Goizetik ekingo detse egitarauari, 11:00etan Arrate Kultur Elkartearen hasiko dan militantzia feministaren inguruko ma-
 haingurua. 13:00etan, barriz, Arragueta kalia murala margotuko dabe eta 14:30xetan Eibarko Bizikleta Plazan bazkarixa egingo da, Bizimiñaren eskutik. Ondoren, Nerea Arriola Urberuagak monologua eskinduko dau. Arratsal-



deko 19:00etan hasiko dabe musikarekin girotutako kalejira, tabernarik taberna, Gazte-xeraiño. Han taldiaren erretratua egingo dabe, 21:30xetan eta gabian segiduko dabe jaixarekin, bakarrik andrenda-ko izango dan DJ saiuan.



Kontzertua eta Gautenaren aldeko subastia Ametsan

ZZTorpes taldiaren kontzertua antolatu dabe bixar-ko Ametsa tabernan eta, horrekin batera, Gautena autismuaren Gipuzkoako alkartiaren aldeko subasta egingo dabe. ZZ Top taldiaren musikari eskindutako taldea aurretik CV izenekua osatzen eben Oscar Martinez-Toledano, Fernando Machin, Oscar Sola eta Aitor Irisarri eibartarren eskutik sortu zan. Emanaldixa 19:00etan hasiko da eta, abestixen arteko tartietan, Aratostietan taberna dekoratzeko egin zittuen kuadrak enkantian ipintzeko aprobe-
 txauko dabe. Kuadrak subastara etara eta, horri esker batzen daben dirua Gautena alkartekueri emongo detse. Bestalde, Gautena alkartekua be bixar-ko ekitaldixan parte hartzen egongo dira, txorizo-pintxuak salgai ipiñiko dittue-eta.

asteko
150.000
 datua

euro, 2018xan baiño 50.000 euro gehixago bideratuko dittu Udalak 50 bihargin baiño gitxiago daken enpresari laguntzeko. 3.750 eta 4.250 euro arteko dirulaguntzak izango dira, tamiñuaren arabera.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea





centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ **943 12 02 00 – 943 12 02 04**

- 1) Kardiologia
- 2) Zirugia
- 3) Dermatologia
- 4) Dietetika / Nutrizioa
- 5) Análisi Klinikoak
- 6) Ortodontzia
- 7) Otorrinolaringologia
- 8) Psikiatria
- 9) Barne Medikuntza

- 10) Radiologia
- 11) Urologia
- 12) Traumatologia
- 13) Koloproktologia
- 14) Erizaintza
- 15) Foto-depilazio Unitatea
- 16) Psikologia
- 17) Neurofisiologia

BERRIA



Ordezkarri politikoek zuzenean erantzun zituzten JUBILATUEN GALDERAK

Eibarko pentsiodun eta jubilatuen eskutik astelehenero Untzagan egiten den mobilizazioa berezia izan da aste honetan, domekan Udal Hauteskundeak izango direla eta, horren aitzakiarekin gure herriko alkategaiak plazan elkartu zituzten eta, pentsioen inguruko hainbat galderari erantzuteko. Izan ere, Euskadiko Pentsiodunen 2018ko urtarrilaren 15ean ekin zioten pentsio publiko eta duinen aldeko borrokari eta harrezkero 15 hilabete daramatzate eten barik mobilizazioak egiten. Horregatik, pentsioen inguruko eskumena Madrilgo eta Gasteizko gobernuek dutela jakin arren, "hauteskunde kanpaina honetan ere pentsioen gaiari heldu behar zaiola" pentsatzen dutela gaineratuta eta, erlojua eskuan, moderatzaileak galdetzeari ekin zion.

Untzagako harmailetan zeuden pentsiodunen galderei erantzuteko prest, parean jarri ziren Javier Nuñez (PP), Miguel de los Toyos (PSE-EE), Josu Mendicute (EAJ-PNV), Julen Bollain (Elkarrekin-Podemos) eta Gorka Errasti (EH Bildu). Hasteko, pentsioen balioa gutxienez KPI errearen arabera handitzea nola ikusten zuten galdetu zien eta denak erabat ados agertu ziren, eskaera hori zilegia ez ezik premiazkoa ere bazela gaineratuta.

Jarraian, gutxieneko pentsioa 1.080 eurotan ezartzearekin ados zeuden ala ez galdetu zien, galderari proposamen bat gehituta: Espainiako instituzioek hori betetzeko ardura bere gain hartu bitartean, EAEn gu-

txieneko kopuru horretara ailegatzeko osagarria aplikatzea. Horren aurrean, **De los Toyosek** gogora ekarri zuen Pentsiodunen Plataformak aurkeztutako mozioa onartu zutela Eibarko Udalean, "baina hortik aurrera ezer gutxi egin dezakegu, Madrilgo gobernuari dagokion gaia da eta. Hala ere, ahal dugun neurrian pentsiorik bajuenak osatzen ahalegintzen gara, horretarako hainbat dirulaguntza emanaz". **Mendicutek** oso argi laga zuen pentsioen ardura zeinena den: "Kotizazioak estatuari egiten bazaizkio, pentsioen inguruko eskaerei erantzutea ere estatuari dagokio, ezin dugu horrelako gasturik gure gain hartu. Bestalde, pentsioak igotzeko beste bide batzuk badaude, adibidez gutxieneko soldatak igota. Hemengo gutxieneko soldata Europako beste herrialdeetan dagoena baino askoz txikiagoa da eta horiekin parekatu beharko genuke". **Bollainek**, berriz, Legebiltzarrean eskaera hori onartzekotan egon zirela azaldu zuen, "EH Bildu eta Elkarrekin-Podemosko ordezkariak aldeko botua eman genuen, baina besteek kontrakoa eman zutenaz, azkenean mozioak ez zuen aurrera egin". PP eta EH Bilduko ordezkariak ere 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren alde agertu ziren eta, azken honen berbetan, "hori lortzeko borondate politikoa baino ez da behar".

2011. eta 2013. urteetako pentsio eta lan erreformek erosteko eta beste hainbat arlotan kalteak eragin dituztela, horretan ere

denak ados azaldu ziren eta, jakina, horiek ekarritako jasangarritasun faktorea eta beste guztiak indargabetzearen alde agertu ziren denak eta, hurrengo galderan planteatu zieten 1.200 euroko gutxieneko soldatari ere baiezeko biribila eman zioten aho batez.

Soldata eta pentsioei begira, andra eta gizonen artean gertatzen den aldearekin amaitzeko neurriak hartu behar direla, hori ere argi ikusten dute alderdi guztiek eta, besteak beste, alargun-pentsioak "Espainiaren lotsarik handienetakoa" eta "beste sasoi bateko matxismoaren ondorioa" direla bota zituzten. Jubilatzeke adinaren inguruan berbetan, berriz, aurretik jubilatuta nahi dutenei erreztasunak eman behar zaizkiela pentsatzen dute denek, "bizitza osoa lanean eman eta gero, 40 urte kotizatzearekin nahikoa eta sobera" izan beharko litzatekeela gaineratuta.

Eta, azken galderari erantzutean ere adostasuna nagusitu zen eta ordezkari guztiak Pentsioen Sistema Publikoa indartzearen alde azaldu ziren: "Fondo pribatuak eta horrelakoak egon arren, oso argi izan behar dugu zutabe nagusia beti pentsio publikoen sistema izan behar dela eta hori indartu eta bermatu beharra dagoela. Hortik kanpora egindako edozein proposamen bidegabea eta ez solidarioa litzateke". **Nuñezen** iritiz, "gaur egungo sistemak aldatetak behar ditu" eta, amaitzeko, pentsioen sistema propioaren aldeko aldarria egin zuen **Errastik**.

Hauteskunde-debateak Portalea bete zuen

Horrelakorik orain arte inoiz ez dela egin eta hemendik aurrera gehiagotan egiteko asmoa azaldu zuen Erreal Plataformak deituta eguazten arratsaldean Portalean bildutako jendeak. Ez hori bakarrik: deia ere egin zuten alderdikeriak baztertu eta Udaleko ordezkari guztiek *“benetako taldea osatu eta horretan ere Eibarrek eredia emateko”*. Alkate izateko bost hautagaiek erantzun zieten herritarrek egingadako galderei eta behin baino gehiagotan ados ere izan ziren azken horiek. Bilera parte-hartzailea izan zen eta Josu Ibartutxik moderatutako galdera sortan hamabost lagun baino gehiago izan ziren parte hartzen.

Eibarko Erdi eta Beherako asmoen inguruan jardun zuten batez ere debatean eta, orain arte egindakoaz aparte, alkategai bakoitzak euren asmoak kaleratzeko ere balio izan zuen bilerak. **PSE-EEko Miguel de los Toyos** gaur egungo alkateak aipatu zuenez, *“azken legegintzaldian gastatutako 24 milioi eurotik, herena Erdi eta Behe aldean”* erabili direla esan zuen, *“bi milioi urterero”*. Azitaindik Estaziñora arteko trenbidearen gaineko paseoaren aldeko jarrera erakutsi zuen *“ez alde hori biziberritzeko, baizik eta bizi-kalitatea hobetzeko”*. Aldi berean, herriko zati hori ez dagoela baztertuta defen-



Trenbidearen gaineko pasialekuaren proiektuak kontrako iritzia jaso zituen.

ditu zuen, *“Coliseoa, Lanbide, Hazienda ordezkariak...”* bertan daudela aipatuz. **EH Bilduko Gorka Errastik** Eibar bi abiaduretako herria dela nabarmendu izan zuen eta *“garapen sozioekonomikoaren alde egin”* behar zela adierazi zuen. Zentro zibikoan aldeko jarrera erakutsi zuen eta, egin beha-

rreko Merkatu Plazaren inguruan, *“baserritarren belaunaldi erreleboan”* jarri zuen atentzia: *“Bestela, kanpoko baserritarrak etorri beharko dira gurera”*. Errebalen 10 milioi euro galdu direla esateaz gain, *“kohesio sozial gehiago eta porlan gutxiago”* eskatu zuen. **EAJ-PNVko Josu Mendikutek** azken hogei urteotako atzerakada nabarmendu zuen, *“El Corte Inglesarekin herriaren gunea alde batera joan delako, kontsumoan inolako aurrerapenik egin gabe”*. Aldiz, ezin egokiago ikusten du Azitain eta Bidebarrietaren arteko espazioa aprobetxatzea *“herrian dugun lauena delako”*. Martsarian estazio intermodala egitea proposatu zuen berriro ere, *“horrekin gune horrek asko irabazi dezakeelako”*. **Elkarrekin Podemos-eko Isabel Fdez. Pejenautek** Auzolan zinegotzigoa eskatu zuen, auzoetako kontseiluekin batera, *“bilera gehiagorekin”*. Erdi eta Behe aldeak lagata daudela esan zuen eta *“lau urtetik lau urtera ateratzen diren panfletoetatik ekintzetara”* pasatu behar dela adierazi zuen. **PPko Javier Nuñezek** barkamena eskatu zuen *“orain arte kontrol lana behar den moduan ez dugulako egin”*. Prozesu zenbat eta parte-hartzailegoaren alde egin zuen eta prest azaldu zen proiektuak adosteko.

EIBARKO HAUTES-ZERRENDAK

PSE-EE

- 1- Miguel De los Toyos
- 2- Idoia Sarasketa
- 3- Alberto Albistegi
- 4- Esther Velasco
- 5- Patxi Lejardi
- 6- Patricia Arrizabalaga
- 7- Jon Iraola
- 8- Ana Telleria
- 9- Pedro Escribano
- 10- Isabel Larrauri
- 11- Santiago Iruetagoiena
- 12- M^a Sol Colmenero
- 13- Ander Curiel
- 14- Isabel Sarasua
- 15- Iñaki Azkue
- 16- Mercedes Unanue
- 17- Alejandro Gomez
- 18- Carlota Utrera
- 19- Arcadio Benitez
- 20- Ana M^a Alberdi
- 21- Iñaki Arriola

Ordezkoak:

EH Bildu

- 1- Gorka Errasti
- 2- Igone Lamarain
- 3- Miren Baranguan
- 4- Jose Angel Gimare
- 5- Ana Fran Astigarraga
- 6- Yon Urrusolo
- 7- Asmae Ourdi
- 8- Antton Aldalur
- 9- Javi Escudero
- 10- Rosario Agirreazaldegui
- 11- Jose Antonio Orueta
- 12- Amaia Arregi
- 13- Iñaki Penedo
- 14- Leire Narbaiza
- 15- Jorge Perez Jauregi
- 16- Iñigo Muñoz
- 17- Arrate Egurrola
- 18- Ibai Diez
- 19- Iker Eizagirre
- 20- Begoña Vesga
- 21- Aizpea Izagirre

Ordezkoak:

Serafin Basauri
 Aniaiz Ariznabarreta

EAJ-PNV

- 1- Josu Mendikute
- 2- Alberto De la Hoz
- 3- Mertxe Garate
- 4- Elena Ibañez
- 5- Jon Perez
- 6- Amaia Albizu
- 7- Iker Laka
- 8- Lander Abarrategi
- 9- Igone Lazpita
- 10- Isabel Elorza
- 11- Asier Feijoo
- 12- Ane Abarrategi
- 13- Ivan Iriondo
- 14- Laura Martinez
- 15- Oscar Alberdi
- 16- Irma Iris Ruiz
- 17- Pillipa Milikua
- 18- Ione Telleria
- 19- Fernando Gutierrez
- 20- Begoña Muguruza
- 21- Alexander Arriola

Ordezkoak:

Jesus M^a Agirre
 Bakarne Sojo
 Jose Manuel Egialde

Elkarrekin Podemos

- 1- Isabel Fdez. Pejenaute
- 2- Ander de los Mozos
- 3- Isabel Rico
- 4- Pablo Leon
- 5- Nerea Gredilla
- 6- Julen Bollain
- 7- Nerea Ibaibarriaga
- 8- Isidoro Garcia
- 9- Iciar Albeniz
- 10- Danel Arizaga
- 11- Dolores Fernandez
- 12- Guillermo Mekolalde
- 13- Arrate Albeniz
- 14- Manuel Vazquez
- 15- Ana Isabel Rodrigo
- 16- Tomas Azkue
- 17- Nuria Pizarro
- 18- Juan Sanchez Vallejo
- 19- M^a Jesus Agirre
- 20- Jose Luis Notario
- 21- Marta Muradas

Ordezkoak:

Aitor San Ildefonso
 Isabel Gonzalez
 Joseba Ruiz

PP

- 1- Javier Nuñez
- 2- Mila Urizar
- 3- Carmen Larrañaga
- 4- Adolfo Alonso
- 5- Teodoro del Valle
- 6- Isabel Felix
- 7- Alvaro Almela
- 8- Josefa Del Canto
- 9- Angel Baena
- 10- Beatriz Peral
- 11- Luis Peral
- 12- Nieves Alonso
- 13- Ignacio Granados
- 14- Cristina Fernandez
- 15- Cayetano Torres
- 16- Angeles Arias
- 17- Raul Terron
- 18- Carmen Martin
- 19- Jose M^a Erenas
- 20- Claudia Fernandez
- 21- Isabel Martin

Ordezkoak:

Nuno Aquilino Muiños

Alejandro Cidek hilabete darama Arraten eta berarekin gurutzatzen diren pertsona guztiak ezagutzen ditu dagoeneko. Arrateko apaiz berria Txiletik etorri da, "ikasteko asmoz". Hemen jaso nahi dituen jakintza berriek bere jaioterria garatzen lagunduko dioten esperantza du, baina bide luzea du aurretik. Eibartarrek Arrateko Amarekiko duten maitasuna ulertzea izan da lehen pausoa.

ALEJANDRO CID
 (ARRATEKO APAIZA):

"Arraten ateoak ere etortzen dira mezetara"

- Zer moduz lehen egunak Arraten?

Asko harritu nau eibartarrek Arrateko Amari dioten maitasuna. Ateoak ere etortzen dira mezetara hemen. Behin eibartar bat etorri zen bihotzean ebakuntza egin behar ziotela esanez. Beldurtuta etorri zen, baina fedearrekin joan zela ikusi nuen. Arraten Ama Birjina dago erdian, mirariak egiten dituen Jesus izan arren, hemen Ama da garrantzitsua. Niri ere zerbait bitxia gertatu zait. Txiletik Donostiara heldu nintzen eta astebete egin nuen han. Pasaporte bat gainera eramanen nuen, poltsikoan ondo gordeta, baina Arratera bidean nentorrela galdu egin nuela pentsatu nuen. Arrateko igoerak bide amaiga-

bea dirudi, inoiz ez da amaitzen, zenbat kurba! Heldu nintzenezan pasaporte agertzeko eskatu nion Arrateko Amari eta liburu baten orrien artean aurkitu nuen.

- Aste honetan Eibar KE-ko kideak izan ziren Arraten lore eskaintza egiten. Nolako ekintza izan zen?

Xarma handiko ekintza izan zen. Luxuzko autoak eta jantzi garestiak arrotzak zaizkidan gauzak dira. Taldean txiletar bat dagoela ikusi nuen, Fabian Orellana. Batasuna, foballaren balioak eta horrelako berbak bota zituen Amaia Gorostiza presidenteak eta egokiak iruditu zitzaizkidan. Badakit etorri ziren guztiak katolikoak ez direla, baina horrelako ekintzek identitatea sortzen dute.



- Santutegiaren inguruko historia ezagutzen zenuen?

Birjina Arratera nola heldu zen kontatu didate. Apaiz bezala ekintzaz haratago ikusi behar dut. Zientziak "zergatik" galderari erantzuten dio eta fedeak "zertarako" galderari.

Arrate toki ezberdina izan zedin jarri zituen harriak Arrateko Amak. Fede kontua da. Ez da berdina minbiziari fedearrekin edo fede barik aurre egitea, fedeak aukera gehiago ematen dizkizulako. Hori falta zaio gizaritari.



PURA FERNANDEZ CANO

(2019ko maiatzaren 14an hil zen, 81 urterekin)

Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



- Mezak euskaraz entzuteko aukera izango dute eliztarrek?

Bai. Eliza apaiz barik egon den zortzi urteetan laiko talde batek mantendu du zabalik eta euren eginkizuna berebizikoa da. Apaiza banaiz ere, ez naiz hemengoa, laguntzera nator. Euskerazko berba eta abesti batzuk ikasi ditut, errespetua zor diot toki honi eta bertako hizkuntza errespetatzea funtsezkoa da. Laikoek euskeraz irakurri eta abesten dute mezan, eta horrela izan beharko luke. Santutegia elkartasun ikurra da eta zentzu horretan hizkuntza oinarritzkoa da.

- 'Arrateko Ama' abestia ikasteko aukera izan duzu?

Eliztarrek mezan zehar ez dute ia ezer abesten, baina 'Gure Aita' eta 'Arrateko Ama' abesten dutenean tenplua metro batzuk altxatzen dela dirudi.

- Zein asmorekin etorri zara?

Lagun batek zera esan zidan: "Ez ezazu itxaropen handiegirik sortu, erromatarrek ere ezin izan zituztelako euskaldunak gailendu. Ahal duzuna egin ezazu". Nafarroako Unibertsitatean filosofia ikasketak egin nituen eta, ondoren, irakasle izan nintzen Txileko ikastetxe katoliko batean. Ikasleei ez zaie gehiegi gustatzen Biblia esplikatzea, baina niretzat arrakastatsua izan zen Jainkoa izendatu barik fedeari buruz berba egitea. Hobeto moldatzen nintzen filosofia ikasle moduan apaiz bezala baino. Ondorioz, azken sei urteetan espero ez nuen indar bat sortu zen nigan, ikasleekin

harreman sendoa sortu zelako. Ikastetxe katolikoa izan arren, ikasle guztiak ez ziren katolikoak, baina filosofia irakasten zuen apaiz batek gauzak batzen lagundu zien: fede-a, arrazoia... Material antropologikoa sortu nuen gazteen galderei erantzuteko, baina bukatu gabeko lana dela uste dut (epistemologia, zientziaren filosofia, metafisikaren balioa eta beste hainbat gauza azaltzen ditut). Lana hankamotz dago, gazteek politikaren eta ekonomiaren balioa zein den jakin nahi dute, enpresariak eta langileak zein toki betetzen duten, zein alde dagoen ezkerren eta eskuinaren artean... Txile asko hazi da azken 50 urteetan. Latinoamerikako herrialde pobreena izatetik oso garatua izatera pasa gara, baina aberats berriek bezala jarduten dugu. Zorripiztu horiek, beti aberatsak izan direnekin alderatuz, oldarkoragoak eta zapaltzaileagoak dira. Enpresari despotak ditugu, batzuk nire ikasleak izandakoak. "Zer motatako katolizismoa ari gara sortzen?", galdetzen nion neure buruari, eta horren inguruan hausnartzeko eta ikasteko denbora behar nuela ondorioztatu nuen.

- Beraz, ikastera etorri zara?

Bai, baina ikasketak ordaintzeko lan egin behar dudanez, Euskal Herrian lan egin eta ikasten duten apaizak zeudela nekien eta hona etortzea erabaki nuen. Laguntza behar zuenari laguntzeko prest nagoen eta Jose Ignacio Muniñak, mundu osoan ezaguna

"'Gure Aita' eta 'Arrateko Ama' abesten dutenean tenplua metro batzuk altxatzen dela dirudi"



"Aurrerapena nola sortzen den aztertu nahi dut gehiengoaren ongizatea lortzeko"

den gotzainak, laguntza behar zuen. Uste dut Txilen hemen baino gehiago maite dutela. Eskaera egin nion eta lagundu egin zidan. Apaiza izateak ez du esan nahi den-dena errebelatua izan zaidanik eta ulertzen ez ditudan gauza asko dago, baina elizarenak ere. Askok erretatu eta hausnartu behar dut, eta toki egokia behar nuen horretarako. Hori bai, bakartu barik, ez dudalako ermitau bokaziorik. Orduan, Arraten dauden mojak kapilaurik ez dutenez, hona etortzeko aukera eman zidaten eta ideia bikaina iruditu zitzaidan, non zegoen jakin gabe. Toki paregabea da.

- Non egingo dituzu ikasketa horiek?

Nire asmoa Nafarroako Unibertsitatean ikastea zen, baina Deustun ikasteko tentatuta nago. Nafarroako Unibertsitatean ikasiz gero Opus Deirekin lotzen dizute eta Txilen gaizki ikusita dago. Nik ordainduko dut, beraz, nirea da aukera. Gainera, Deustu hurbilago dago. Kontua da ez dudala nahi inork nire tesiaren gaia zein izan behar den zehaztea. Ez dit ardura gradua lortzea, inork ez didalako titulua eskatuko, baina merkatu librearen oinarri antropologikoen eta hauek elizaren doktrina sozialean duten ondorioen inguruan ikasi nahi dut.

- Zergatik?

Politika asmo onez egiten dela uste dudalako, baina diruarekin arraultzak erosten dira eta arraultzekin tortilak egiten dira. Adibidez, Michelle Bachelet Txileko presidentek doakotasuna ezarri nahi du irakaskuntzan, bikain, baina dirurik ez badiote ematen, biztanleriaren bostena doakotasun barik geratuko da. Gauza asko egin nahi ditu, baina era berean ez dauka gauza horiek aurrera ateratzeko baliabiderik. Osasuna, hezkuntza eta segurtasuna nahi dugu, baina nork finantzatuko du? Katoliko moduan begirada objektiboa egiten dut. Badakit kapitalismoa defendatzea politikoki ez zuzena dela eta ez dut defendatu nahi, baina ondareak murriztzak dira eta aurrerapena nola sortzen den aztertu nahi dut gehiengoaren ongizatea lortzeko.



Asteburu honetarako genkan hartuta zurekin gure urteroko bidaia. Horregaittik eruango zaittugu gurekin, eta zuri gustauko jatzun moduan disfrutatuko dogu.



Askok maite zaittugu, ARRATE

Zure kuadrilla

Asteazkenean ikasturte amaierako kontzertua eskaini zuten Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek Coliseo antzokian. Urtero bezala, musika eskolako taldeek hartu zuten parte eta diplomak banatu ziren. Eskolak adin guztietako herritarrei eskaintzen die aukera musikara hurreratzeko, lau urtetik aurrera. Ikasturte amaiera aprobetxatu dugu bertako zuzendari pedagogikoarekin hizketaldi bat izateko. Markos Juaristi goitik beherako musikaria da. Estilo desbedinak jorratu ditu (folka, rocka, popa...) eta piano eta kontrabaxu klasikoaren ikasketak egin zituen Donostian eta Baionan. Bere kabuz ikasi zuen gitarra jotzen. Euskal Herriko plazak girotzen ibili zen Akelarre musika taldeko kidea izan zen, besteak beste. Parisen jaioa, haurtzaroa Azkoitian igaro zuen, baina oso gazte zela hasi zen alde batetik bestera joaten. Gaur egun Hendaian bizi da eta astean 4 aldiz etortzen da Eibarrera. 24 urte daramatza gure artean.



Markos Juaristi zuzendari pedagogikoa eskolako ikasle batekin.

Musika eskola aurrera begira

Hendaia hona lanera etortzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, baina gustora etortzen da Markos Eibarrera. *"Bizi guztia ari naiz errepidean, oraindik ez zait astuna egiten. Eibarren 24 urte daramatzat lan egiten, eta denborarekin Eibarko jendea eta Eibarko kultura hori ezagutzeko aukera izan dut. Berezia ikusten dut Eibar. Topografia hain estu horrek kasta bat sortzen du. Muga horien barruan bizitzeak garatu egiten du eibartarren gauzak egiteko gaitasuna. Nahiz eta herria erre, beste bat sortuko lukete eibartarrek. Gustora nago"*.

Musika aldetik Eibarren beste lekuetan bezala, denetik dagoela uste du Markos. Gazteen artean, mugikorrek eta, abesteko ohitura galtzen ari delako kezkatuta dago. *"Kaleetan Kantuz eta horrelako ekimenak egotea oso ondo dago. Kalean abestearena poliki-poliki galtzen ari da. Iparaldean geratzen da kutsu hori. Tabernetan eta ostatueta jende oraindik abesten du pixka bat, baina ondo letorke hori guztia gehiago sustatzea"*. Gazteak gauza eta musika askorekin inbadituta daudela ikusten du, eta *"ez dute apreziatzen egile batek orduak sartu dituela eta formakuntza bat izan behar duela. Uste dute hatza-*

marra pantailatik pasa eta dena eginda dagoela. Instrumentuak jotzeko moduan ere ikusten da hau. 7 urteko haur bati lehen aldiz instrumentu bat ematen diozunean, gitarra adibidez, soka igurtzen hasten da, ez du tira egiten. Magnetofoi zaharren botoiak ez dituzte ezagutu! Aldatzen ari da hori ere. Eta gero esfortzuaren kontua dago. Aisiladuan hainbeste alternatiba daukenez, gutxiago dedikatzen diote musikari. Kirol asko daukate, partikularrak, ingelese... Instrumentua ikasteko ez dute denborarik hartzen. Eta hori panorama txarra da guretzako".

Musikak gauza askotan laguntzen duela argi dago. Memoria eta intelektua lantzeko eta izakera kontrolatzeko ez ezik, harreman sozialak lantzeko ere tresna ezin hobea dela gogoratu digu Markos: *"Taldean jarduten duzunean taldekoekin hitz egiten duzu musikaren bitartez. Askatasuna ematen dizu eta autoestima igotzeko balio du. Gazte askok autoestima galduta dau-*

kate, kirolerako ez dutelako balio, esaterako. Musikan garatzen baditu bere abileziak, eta balio badu, eskolara burua altxatuta joaten da". Musikan euren lekua aurkitzen dute askok beraz, musikan abilezia berezia daukatelako. Musikan zerbait direla sentitzen dute eta segurtasun bat ematen die. *"Beti ez da erraza multzo batean onartua izatea, eta musikak status moduko bat ematen dizu. Hori bai, gero zuk jakin egin behar duzu jarrera egoki bat izaten. Ona bazara, baina beti aurrean egon nahi baduzu, multzo horretan gaizki ibiliko zara. Beraz, askotan zeure lekuan jartzen erakusten dizu musikak"*. Alderantzizko fenomeno ere gertatzen da batzutan eta zenbaiti mugak kartzen dizkie musikak. Izan ere, *"batzuk beste arlo batzutan oso onak dira, baina musikaren abilezia gartztea lortzen ez dutelako frustratu egiten dira. Hala ere, laguntzen die ulertzen denak ez garela berdinak"*. Bestalde, hasieratik jarrera eta ohitura onak barneratzea ere oso garrantzitsua ikusten dute musika eskolan (karpeta txukuna, agenda, instrumentua ondo zaindu...). Eta metodo pedagogikoak urteekin asko aldatu dira, *"lehen klaseak altare batetik ematen ziren, baina gaur egun irakasleak euren parean jartzen*

"Musikak norbera bere lekuan egoten erakusten du"



gara eta ikusi behar dute gu ere askotan nahastu egiten garela, humanoak garela".

Erronkei begira

Erronkei dagokienez, helburu nagusia urte batzutan ikasle kopurua handitzea dela dio Markosek: *"Harrobi kopurua sendotzea lortzen badugu ikasle gehiago izango ditugu instrumentuak ikasten. Gitarra, gitarra elektrikoa, pianoa edo trikia bezalako instrumentuekin ez dago arazorik, jendea erraz joaten da, baina bandako instrumentuen kopurua handitu nahi dugu. Tronpetak, klarineta, txirula edo saxofoia jotzen duen ikasle gutxi dago, eta hori modu berezi batean sustatzen ari gara, hikuntza musikalean bideo berezi batzuk eskainiz eta bisita rotatiboak egitez. Instrumentu 'minoritario' horiekin eta irakasleekin konneta dezaten ari gara lanean. Kontuan hartu behar da hemengo bandatik irtetzen diren gehienak herriko musika bandara jotzen direla. Beraz, Eibarrek herriko banda mantendu nahi badu, inbertsio txiki bat egin behar du musika eskolan. Nik uste dut herriari interesatzen zaiola musika eskola potente bat izatea, baina horretarako dirua behar da".* Orain dela gutxi, bestalde, bi pantaila interaktibo ekarri dituzte musika lenguaia edo betiko solfeoa erakargarriagoa egiteko, eta engantxe handia du ikasleen artean. Jolasten ikasten dute eta oso motibatuta daude. Bestalde, musika eskola herriari gehiago hurbildu nahi diote. *"Azken aldian ikusgarritasuna lortzen ari gara. Sare sozialetan gaude, eta hor daude Koro Gaztea, Parrapas taldea, Marisol Arrillagaren trikitilari eta panderojole taldea... Ekainaren 20an Untzagan izango gara. Horrela jarraitu nahi dugu, potentzial handia daukagu-eta".*



Gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, kontrabaxu klasiko eta modernoa, teklatuak eta konbo klaseak (taldeak) ematen ditu Markosek. Ondo ezagutzen ditu ikasleak, eta argi dauka denak ez direla berdinak: *"Ez bazaio gustatzen ez dago ezer egiterik. Batzuekin ikusten duzu musikak sentimendua pizten diela, baina beste batzuk pasibo ikusten ditut. Askotan ikusten dut ez dutela erreperteriorik, ez dutela ezer ezagutzen. Nik musikan alderantziz eman ditut urratsak. Kalean jotzen hasi nintzen. Profesional moduan bizitzea lortu nuen, eta gero hasi nintzen guztiari izena jartzen. Ikaslee-kin saiatzen naiz leiho pila bat zabaltzen".* Denek, baina, ez dute balio gitarra estilo baterako. Batzuk oso rockeroak edo bluseroak ikusten ditu Markosek, eta beste batzuk, berriz, apurtxo bat galduta. Horiei euskal errepertorio bat egiteko gomendatzen die eta *"15-16 urterekin aukera izango duzu ligatzeko eta gauza asko egiteko gitarra-aren bitartez. Ikasi ondo jotzen dozena bat kanta eta horiekin akorde gehienak mentzeratuko dituzu",* esaten die.

Asteazkenean ospatu zen Coliseo antzokian J.B. Gisasola musika eskolako ikasturte amaierako kontzertua. Sarrerak agortu egin ziren eta oso une atsegina pasatu zuten han bildutako guztiek herriko musikari gazteek ikasturte osoan ikasitakoaz disfrutatzen. Urtero bezala, ekitaldian diplomak banatu zituzten irakasleek.

382 ikasle ditu musika eskolak gaur egun. Horietako 75 txikitxoak dira, eta beste guztiak instrumentuarekin edo talde batean dihardute. Irakaslegoa gertu sentitzea eta motibazioa ezinbestekoak dira ikasleek aurrera egiteko. *"Dena dela, 6 edo 8 urte musika ikasten egotea niretzako arrakasta da gaur egun. Ikasleak nola motibatu bilatzen dugu eta gurasoen jarrera ere inportantea da. Haur guztiak ez dira berdinak eta gurasoek jakin behar dute seme-alaba bakoitzari zer eman. Ume bakoitza egoera bat da eta nik gogorekin ikusi nahi ditut".*

*jaione yeregui*

Argi dago arroz osoa lasai jan dezakegula: eskaintzen dizkigun onurak eskaini diezazkigukeen kalteak baino askoz ere gehiago direlako

Artsenikoa eta arroza

Gero eta gehiago hitzegiten da elikagaietan dagoen artsenikoaren presentziak. Artsenikoa izatez mineral natural bat da. Prozesu naturalen eraginez lurrian zehar mugitzen da: sumendien eraginez, basoetan sortutako suteen ondorioz, edo harkaitzen eta mineralen erosioz. Ingurumenean ere aurki dezakegu bere presentzia: industria emisioengatik, erregai fosilek sortzen duten energiaren-gatik, herbizida eta insektiziden erabileragatik...

Artsenikoa bi era kimiko desberdinetan aurki dezakegu: organikoa eta inorganikoa. Osasunarentzat arriskutsua era inorganikoa dela esan dezakegu. Artseniko maila altuekiko kontaktu luzearen ondorioz azalean lesioak, pigmentazio aldaketa, hanka azpi eta eskuetan gogortasunak, minbizia... aurki edo azal daitezke.

Nahiz eta zereal desberdinetan, esnean, esnekietan eta uretan artseniko inorganikoa aurki dezakegun, arroz osoa da artseniko gehien eduki dezakeen elikagaia. Arroz landarea uretan hazten denez, beste landareak baino artseniko kantitate gehiago xurgatzen du.

Txinan, 2006. urteaz geroztik dago erregulatuta arrotean dagoen artseniko kantitatea. Espainian, aldiz, 2016tik ari dira pausoak ematen

norabide hontan. Gaur egun onartzen den artseniko inorganikoaren kantitatea 200 ug/kg-koa da.

Espainiako laborantzan egin dituzten ikerketen emaitzak hauek dira: Extremaduran eta Portugalen: 87 ug/kg; Katalunian: 80 ug/kg; Aragoi eta Nafarroan: 67 ug/kg; Valentzian: 63 ug/kg; Murtzian: 57 ug/kg; Andaluzian: 54 ug/kg.

Ikus daitekeen bezala, onartzen den neurria baino gutxiago daukate denek. Beraz, penintsulako arroza jateak neurri bateko bermea ematen digu.

Hona hemen elikagaietatik eta, konkretuki, arrozeko artseniko kantitatea murrizteko gomendio batzuk:

- Beratzen eduki zortzi bat ordu.
- Ur desberdinetan garbitu, ura argi-argi geratu arte.
- Ur askorekin egosi eta, ondoren, soberan dagoen ura bota.

Guzti hori ikusi ondoren, argi dago arroz osoa lasai jan dezakegula. Eta merezi duela emandako gomendioak jarraitzea, arroz osoak eskaintzen dizkigun onurak eskaini diezazkigukeen kalteak baino askoz ere gehiago direlako.

*arrate garitaonandia*

Kontua ez da teknologiak eskaintzen dizkigun abantailei uko egitea, baizik eta erabilera egokia egitea, bestearekin sintonian egotea

Teknologia, ihesbiderako babeslekua?

Haurrak eta helduak pantaila digitaletan erabat murgilduta ikusten ditudanean, euren harremanen kalitatearen inguruko galderak sortzen zaizkit. **Teknologiaren erabilera babesleku ezinhobea izan daiteke isolamendurako eta ihesbiderako.** Konturatu gabe testuinguru desberdinetan (etxean, eskolan, laguen artean) pantailen erabilera normalizatzen dugu, aldamenen dugunarengandik deskonektatzen gara eta gure osasunarengan dituen ondorioak ez ditugu kontuan hartzen. Adin desberdinetan ere somatzen da, eta batzutan oso adin txikietan, familia-ingurune guztiari eraginez. Sarritan pantaila hotzek bazkalosteko hizketaldiak eta hartu-emana ordezkatzen dituzte.

Zer da neuro plastizitatea? Gure ohiturek baldintzatu egiten gaituzte eta gure burmuina egituratu egiten dute. Hau da, gure burmuina teknologiaren aldeko joera handiagoa izateko egituratu dezakegu eta, aldi berean, posible da besteekin konektatzea zailagoa izatea. Fenomeno biak elkarrekin joan daitezke. Esate baterako, asteburuetan etxean orduak eta orduak jolasten ematen duen nerabeak bere lagunekin irtetzea ekiditen duenean.

Nolako lotura daukate gure ohitura sozialek gorputza eta osasunarekin? Berriki egin diren ikerketek diotenez (Fredrikson), kontak-

tu sozial ezak bizitasuna edo bitalitatea gutxiagotzen du. **Gure burmuina bihotzarekin lotuta dago nerbio bagoaren bitartez.** Tono bagala "bentrala" denean, erantzun kardiobaskular eta immunologiko ona dagoela esan daiteke. Tono bagal hori aldatu egin daiteke eta, neurri handi batean, ohitura sozial egokien arabera da.

Non dago oreka? Kontua ez da teknologiak eskaintzen dizkigun abantailei uko egitea, baizik eta erabilera egokia egitea. Bestearekin sintonian egotea, bere erritmoan, aurpegira begiratzea, irribarre egitea, modu espontaneoan disfrutatzea, enpatizatzea. Tono bagalak estimulatzen gaitu. **Balio horiek umeei transmititzeak euren osasuna hobetzen du. Nahaste teknologiko batean galtzeko arriskuak babesten ditu eta erabilera on bat egiten laguntzen die.**

Egin dezagun hausnarketa bat. Eredu ona naiz? Nire harreman beharrak asetuta daude? Eta... nire seme-alabekin ezartzen ditudan mugak zentzuzkoak dira?

Doaneko lerro konfidentziala dago adin txikikoei, gurasoei, tutoreei eta hezitzaileei teknologiarekin lotutako gaietan laguntzeko (menpekotasuna, ziberakosoa...): 900116117. Webgune informatibo bat ere daukazu eskuragai www.is4k.es

etxe apainketa



gehigarria

Argi naturalaren onurak

Adituen arabera argi naturalak bizitza kalitatea hobetzen du eta depresioaren kontrako lagun naturala da. Hortaz, ongi argitutako etxe batek argia isuri ez ezik, harmonia, bakea eta ongizatea ere ekartzen du. Horregatik argi naturala etxean izatea ezinbestekoa da.

Argi naturalaren onuren artean begietako tentsioaren murrizketa dago. Hortaz, irakurketa errazten da, kontzentrazioa igotzen da eta ospitaletan ere gaixoak hobetzen dira. Gainera, aipatutako onura hauek guztiak ez ezik suminkortasuna ere murrizten dela diote adituek. Pertsonak bizitzaren % 80a baino gehiago eraikinen artean pasatzen dute. Hortaz, argi naturalaren presentzia oso garrantzitsua da.



siak dira. Beraz, ilunak edo opakoak diren elementuak saihestu behar dira. Adibidez, argia egongelako iskin guztietan sartzeko espazio irekiak sor daitezke. Izan ere, espazio irekiak, inolako hesirik edo oztoporik gabe, askoz argiagoak izango dira. Gainera, handiagoak eta harmoniatsuagoak ere badira espazio hauek.

Probetxua ateratzeko aholkuak

Zoritarrez edozeinek ezin ditu eguzkiaren izpiak etxean ongi sartzeko leihaite handiak edo terrazak izan. Beraz, hainbat trikimailu jarrai daitezke etxean argi naturalarekin ongi argitzeko.

Ateak eta espazio irekiak

Tabikeak bezala, atek argiaren he-

Kolore argiak

Argia areagotzeko eta antzeko laguntzaileak izango dira kolore argiak. Beraz, argi gutxi sartzan den lekuetan kolore argiak izan daiteke konponbidea. Hortaz, kolore ilunak alde batera utzi behar dira, eta zuriak edo nude koloreak gailendu.

CASAMANIA
Erreformak eta altzariak

San Juan, 16 - ac
943 204 259
www.casamaniaculture.com
info@casamaniaculture.com

Birjiñape, 1
JAINAGA
943 70 21 99

GORTINAK / ALFONBRAK / MOKETAK / ERRAILAK / TAPIZERIA / ...

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



**ARROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**



943-105810

info@klauseibar.com

www.klauseibar.com

klause

denda
proiektuak
dekorazioa
erreformak



Estaziño, 3

BARNE-ARKITEKTURA
(PROIEKTUAK / ERREFORMAK)
*Interiorismo eta Dekorazio
Estudioa*



**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Rosario, 15
ELGOIBAR
605 71 31 68
943 74 40 19



i'M ARKITEKTURA

IRIANDO MAS ARKITEKTURA | www.imarkitektura.com | 618854121 | 623183075

JUAN GISASOLA 10

FATXADAK | IGOGAILUAK | TEILATUAK
EGURREZKO EGITURAK | ERREFORTZUAK
ETXE | LOKAL | BASERRI ERREFORMAK
TXOSTEN TEKNIKOAK | INSPEKZIOAK

Bulegoa, etxean bertan

Propio lan egitera bideratuta dagoen gela bat izatea beharrezkoa da etxetik lan egiteko. Gela bulego bilakatzeko ez dago aldaketa handirik egin beharrik.

Geroz eta jende gehiagok egiten du lan etxetik, eta beraz, geroz eta gehiagok dute bulegoa etxean. Bere abantailak ditu, izan ere, adituen esanetan, etxeko berotasunean lan eginda produktibitatea handiagoa da, estres maila baxuagoak pairatzen dira, lanerako joan-etorriak aurrezten dira eta etxeko lanekin uztartzea errazagoa da. Hala ere, lan eta bizi toki berean eginda, deskonektatzeko zailtasunak ager daiteske. Dena ez nahasteko, bizitzeko eta lan egiteko espazioak ongi bereizi behar dira.

- GELA ONDO AUKERATU

Gela aproposena egongela eta sukaldetik urrutien dagoena da. Eguneko



Tf. 943 702 612 Mobila. 625 185 122
lerreformak@gmail.com

- Barne erreformak
- Iturgintza / Gasa
- Igeltseritza
- Gremioen Koordinazioa



Estaziño, 14

BENICOBA

*ETXEKO TRESNAK
SUKALDEKO ALTZARIAK*

Juan Gisasola, 12-14

943 20 39 02

606 83 83 61



zati handiena egongela eta sukaldean egiten da, eta hortaz, lana egiteko eta atsedean hartzeko guneak ahalik eta berezienak egon behar dira.

Ahal bada, berezitate gela bat izan dadila. Esaterako, ganbara edo sotoa.

- DEKORAZIOA

Bulegoaren diseinu egokiak lotura zuzena du kontzentrazioarekin eta inspirazioarekin.

Paretan koloreak neutroak eta leunak izan behar dira. Hala, beste hainbat onuren artean, gutxiago nekatzen da langilea.

Mahaiak tamaina egokia izan behar du, ordenagailua, teklatura, idazteko toki nahikoa eta telefonoa edo imprimagailua izateko adina espazio izan behar du.

- ARGIA

Argiztapen egoki bat izatea oinarritzkoa da lanerako espazio eroso bat izateko.

Gomendagarriena argi naturala erabiltzea da, eta mahaia era perpendikularrean jarri behar da.

Argi naturala baliatzea ezinezkoa bada, sabaiko lanpara batekin edo argi hotzeko flexo batekin argiztatu behar da ingurua.

- JARLEKUA

Eserlekua bulegoko atalik garrantzitsuenetakoa da, eroso egoteko.

Jarlekuak, ergonomikoa izan behar da, lunbarretara ongi egokitu behar da eta moldagarria izan behar du norberaren beharretara egokitzeko. Osasungarriagoa izateko, oinak erabat lurrean eta belaunak 90 graduko tolesdurarekin izan behar dira

- TXUKUNTASUNA

Txukuntasuna mantentzeko, apalak eta fitxategiak erabili behar dira eta, aukera badago, bigarren mahai bat ere bai.



www.irazabal.net

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

KONFIANTZAZko enpresa
KALITATEZko lanak
bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda



IGELTSEKITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA



Zure ingurunea (etxea, bulegoa, tailerra...) aldatu nahi baduzu, **GUK LAGUNDUKO DIZUGU...** gustorago bizitzen eta etorkizun hobez gozaten.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

“Hau da nik nahi nuena”

Zaratak ez dira bizilagun atseginak

Soinu kutsadurak osasunerako eragin negatiboak izan dezake, antsietatea, estresa, sumingarritasuna edo atsedenaekin erlazionatutako arazoak, kasu.

Herrietako kaleetako zaratak, kotxeak, bizilagunen altzarien mugitzeak edota txakurren zaunkak arazo bat dira herri askotan. Hainbat eraikuntzek soinuaren isolamendu gutxi dute, beraz, edozein zarata sartzan da eraikinean. Hortaz, gaur egun etxe erosle askok zaratatik isolatuta dagoen eta zarata kutsaduratik aterpe den etxe bat eskatzen dute.

Ez da gutxiagorako, Espainiako Estadistika Instituto Nazionalaren datuen arabera, %15,9-ak etxeetan auzolagunen edo kalearen zarata jasaten duela esan baitu. Eraikin bat zarataz isola-



tzeko modu asko daude, hainbat modutan, gainera, ez da etxebizitza eraberritu behar. Zaratatik eraikin bat isolatzeko naturako materialak erabil daitezke. Hara nola kortxoa, isolamendu taulak, poliestirenoa, geruza askotako panelak, txirbil sabaiak, lehortutako zolatak eta beira bikoitzak.

Materialaren aukeraketa

Materialaren aukeraketa egokia egiteko kontuan izan behar da zarataren maila eta mota, eta kanpoko, barrukoa edo erreberberazioaren arabera den. Kasu guztietan uhinak murrizteko material xurgatzaileetan oinarritutako materialak izan behar dira,



**ISOLAMENDUAK
ERREFORMAK
ERAIKIN ERREHABILITAZIOA
OBRAK ETA PROIEKTUAK**

943 57 41 03 Jose Antonio Gisasaola, 1 www.aislamientosjmr.com





Txonta, 30 - 1.a eta behea
Tel. 943 12 13 67
Faxa. 943 12 01 50
www.ulmar.net
info@ulmar.net

ERAKUSKETA:

Urkizu, 26 (EIBAR)
Tel 943 12 74 01

**Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia**



1964
ESTUDIO

INTERIORISMO
ERREFORMAK
PROIEKTUAK
ALTZARIAK

jardiñeta, 14 tf. 656756485 www.estudio1964.com

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

are gehiago sabaietan, lurzoruetan eta hormetan. Bizilagunen eta barruko zaratak isolatzeko aukera hobereana uhinak xurgatzeko panel berezien instalazioa da; esaterako, beira artilea edo haitz artilea. Material hauekin tabikeen artean dauden hutsuneak betetzen dira eta kortxoak bezala zaratak murrizteko konponbide ekologikoa dira. Zaratak ekiditeko isolamendu handia behar bada, aukera hobereana egurrezko edota beste hainbat materialetako isolamendu taulak dira. Poliestirenoa hormen barruan jartzen da zaratak xurgatzeko. Geruza anitzeko panelen formulak, aldiz, soinu mintz eta xurgatzeko mintz bana dauka, hortaz, hormetarako zein lurzoruetarako balio du. Etxebizitza zaratatik isolatzeko beste modu bat lehortutako zolatak dira. Material hau laminatutako igeltsuz osatutako panelak dira. Sabaietarako eta auzolagunen eta hoditerien zaratak murrizteko egur eta porlan txirbilez osatutako plakak daude ere.



Leihoak, zarata isolatzailea

Zarata da etxebizitza edo eraikin batean leihoetatik sartzen den elementu nagusietarikoa, hortaz, leihoak ere zaratak ekiditeko egokiak izan behar dira: esaterako, beira isolatzailea, intsonorizaturako leihoak eta beira jartze bikoitzak.

Beira isolatzaileak banatutako bi beira dira eta perimetroak zigilatuta daude; beraz, bi beiren artean aire kamara bat gelditzen da. Isolamendu modu berdina dauka beira jartze bikoitzak ere. Hala ere, alternatiba hobereana leiho jogunedunak edo eraisgarriak jartzea da.



IZARRAITZ
LEIHOAK-ERREFORMAK



Leihoak - Pertsianak - Bainuak
Toldoak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Peoren konponketa...

Bidebarrieta, 48
Tel. 943 25 60 26

EIBAR (SONIA)
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com


mikel elorza

proiektuak, erreformak, sukaldeak, altzariak



tf:605773720

bidebarrieta 12, Eibar



eraieder
since 2007

**FATXADA ETA
TEILATUEN
BIRGAIKUNTZA**

BARNE-ERREFORMAK

**GREMIOEN
KOORDINAZIOA**



ERAIEDER, S.L.

Matsaria, 10

Tf. 943 200 453

info@eraieder.es

www.eraieder.es

Eurek ere badituzte altzariak

Maskotak familiako kide bat gehiago dira etxe askotan, eta ez dute inolako bereizgarririk egiten. Japoniarrak izan ziren lehenak maskotentzako ohe eta sofa txikiak egiten, baina azkar zabaldu da joera mundu guztian. Zenbait saltoki handik ere atera du maskotentzako katalogoa: ez dute ezer berria asmatu, lehengo altzariei zentimetro batzuk kendu besterik ez baltizkiete egin.



Okawa Kagu konpainia japoniarrak izan zuen gizakien eta maskoten altzariak uztartzeko ideia. Egia da aspaldidanik dituztela katuek eta txakurrek eurentzat propio sortutako altzariak; oheak, besteak beste. Baina ohe horiek kuxin erraldoi borobil bat besterik ez dira izaten, eta ez dute etxeetako gainerako oheen antzaririk. Hala, Okawa Kaguko diseinatzaileek erabaki zuten politagoa zela maskotak ere neurrira egindako gizakien oheak erabiltzea.

Emaitza deigarria da. Sinpatikoak dira ohe eta sofa txikiak, eta bistakoa da maskota zein jabeai atsegingarriak egiten zaizkiela. Arrakasta handia lortu dute denbora gutxian, eta multinazional handiek ere atera dituzte bere altzari propioak. Euren katalogoko berdinak dira bai itxuraz eta bai diseinu aldetik, baina hamar aldiz txikiagoak. Hau da, ohiko ohe baten luzera demagun 200 zentimetrokoa dela: maskotentzako oheak 20 zentimetro izango ditu.



Construcciones
MIELPE
s.l.



E.I.T. hutsune konponketa

Mob. 609 383 102

Telf. 943 20 36 61

mielpe@mielpe.com

F. PASCUAL
ARROZTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

Arane, 6
EIBAR
943 20 61 64
943 17 19 73



**ARMAIRU
ENPOTRATUAK**

- Zur mota guztietan
- Zure dekoraziora
egokitutako soluzioak

**SUKALDE
ALTZARIAK**

- Fabrikatzaileak gara
- 30 urtetik gorako
esperientzia

www.cocinaspascual.com



Zubiaurre, 36 - 38
ERMUA
943 17 68 28



**VIRGINIA
PASCUAL**

19 urteko eibartarrak Mondragon Unibertsitateak Oñatin eskaintzen dituen enpresagintza ikasketak egiten dihardu eta, horren harira, Guatemalako Santa Cruz de la Lagunako familiei laguntzeko WeWant proiektua sortu du. Horretarako dirua biltzeko asmoz, ekainean jaialdia egingo dute Hezkuntza Esparruko aretoan eta ekitaldi horretan parte hartu nahi duten eibartarrei dei egiten die.



ANE DAVILA (WEWANT PROIEKTUA):

“Guatemalako laguntza lortzeko jaialdian parte hartzera animatu nahi dugu jendea”

- Nolatan ipini duzu martxan horrelako proiektua?

Oñatin Lidertza, Ekintzailtza eta Berrikuntza ikasten nabil eta berez karrera praktikoa da, hau da, ikasitakoa praktikan ipintzen dugu, proiektuak errealak dira, eta Kala gure elkarte ere erregistratuta dago. Nire proiektua WeWant izeneko hau da eta 16 lagunek dihardugu honetan lanean. Helburu nagusia Guatemalan, Santa Cruz de la Lagunan bizi diren emakume eta haurrei laguntzea da. Familia indigena batzuk dira, han badute eurei laguntzeko Casa Milagro izeneko elkarte bat eta eta guk horrentzat laguntza lortu nahi dugu. Baina, lagundu ahal izateko, lehenik eta behin han nola dauden jakin behar dugu eta, horretarako, hainbat jarduera egiten hasi gara. Horrez gain, uztailean hara joango naiz, hilabete osoa han pasatuko dut. Eurei lagundu ahal izateko proiekturen bat asmatzea gustatuko litzaiguke, horrela laguntza epe luzerakoa izateko.

- Eta zergatik aukeratu zenuen Guatemala zure laguntza proiekturako?

Ez nuen aurretik proiektu hau ezagutzen, baina sozialki garatzeko proiektu batean interesa nuen. Hala ere, umeei hezkuntza kontuekin lagundu ahal izateko, edo emakumeekin lan egiteko, eurekin berba egitea oso garrantzitsua dela uste dut eta, beraz,

alde horretatik hezkuntza menperatzea beharrezkoa zela ikusi nuen. Horregatik, Erdialdeko Amerikan gaztelarekin erreztasun gehiago izango nuela pentsatu nuen eta horrela hasi nintzen inguru horretan martxan dauden proiektuen inguruko informazioa bila, elkarte hau aurkitu nuen arte. Proiektua interesgarria iruditu zitzaidan, laguntza emateko aproposa, hango ardura-dunari ere nire profila egokia begitandu zitzaion eta horrela hasi ginen kontaktuan.

- Zeintzuk dira hango premia nagusiak?

Casa Milagro elkarteak 10 urte daramatza lanean, han bizi direnei laguntzen. Ume askok ez daukate eskolara joateko modurik, familia askok eskolara joateagatik eskatzen duten diru apur hori edo hartu behar duten autobusa ordaintzeko ere ez dutelako. Horrelakoei aurre egiten laguntzen diete, haurrak eskolara joan ahal izateko. Horrekin batera, ikasten amaitzen dutenean lanean (turismoan...) hasteko laguntza ere ematen dute. Eta emakumeei ere laguntzen diete. Izan ere, han andrekin etxetik kanpora lan egitea oso gaizki ikusita dago, etxe barruan, familiarekin egon behar dute eta horientzat afariak eta beste gauza batzuk antolatzen dituzte.

- Udan hara joango zara. Zein da zure asmoa?

Uztailean hara joanda “enpatia-mapa” modukoa sortu nahi dugu, nola bizi diren, nolakoak diren, zer pentsatzen duten... bertan jasotzeko. Eta, horrekin batera, ni han pixka bat integratzea nahiko nuke, ez izatea kanpotik joan den norbait, baizik eta euren bizitzaren parte izatea. Hango andrekin haziak batu eta artisautza egiten dute eta, eurei laguntzeko negozio bat martxan ipintzea lortuz gero, hori onena izango litzateke.

- Une honetan Eibarren jaialdi bat antolatzeko lanean ari zara, nolakoa izango da ekitaldia?

Jaialdia ekainaren 21ean izango da, Hezkuntza Esparruko areto nagusian, eta normalean horrelako ekitaldietan parte hartzeko aukerarik ez duen Eibarko jende bila gabiltza, abesteko, dantzan egiteko edo dena delakoa egitera animatzeko. Dagoeneko badauzkagu parte hartuko duten hainbat lagun: Eibarko Koru Gazteko kideren batekin abestu egingo du, neska gazte batzuk eta dantzan egingo dute... Herriko jendea eta taldeak parte hartzera animatu nahi ditugu, boluntario modura. Animatuz gero, 680-155746 telefonora deituta edo ane@bekala.net helbidera idatzita ipini daitezke nirekin kontaktuan. Bestalde, proiektuari buruz gehiago jakin nahi dutenentzat, Instagram-en profila sortu dugu (@wewant.cm).

Jaixak Herrixak Herrixandako:**“Bazkariko 700 lagunekin alderatuz, lagun gutxi gabilta prestaketan”**

Hilabete falta da Sanjuanak hasteko, baina Jaixak Herrixak Herrixandako kolektiboak martxoaren hasieratik dihardu egitaraua prestatzen. Ekintza mordo prestatzen dituzte urtero eta herritarren parte-hartzea handia da. Egitaraua prestatzeko jende gehiago behar dela diote eta beso zabalik hartuko lukete jai herrikoi, feminista, parte-hartzaile eta euskaldunak antolatzeko prest dagoen jendea. Eurek dioten bezala: “ez da magia, herri-lana da”.

- Zer moduz doa Sanjuanetako egitarauaren prestaketa?

Jende gutxi etorri da behar dena prestatzeko. Lan-taldeak sortu ditugu eta baliteke nahiz eta bilera orokorretara ez joan atzetik lan egiten duen jendea egotea, baina jende gehiago behar da Sanjuanetako egitarau herrikoi, feminista, parte-hartzaile eta euskalduna sortzeko. Herri-bazkarian batzen garen 700 lagunekin alderatuz, lagun gutxi gabilta prestaketan.

- Beti izan da horrela?

Azken urteetako joera da, gero eta jende gehiago joan delako bazkaltzera, baina antolakuntzan jendea falta dela agerian geratu da orain. Taldean beti egon da sartu eta irten den jendea, baina belaunaldi berriekin beherakada igarri dugu.

- Zein asmo duzue aurtengo egitarauari begira?

Bileretan proposamen irekien erronda egin genuen jendeak zer nahi zuen jakiteko eta aurreko urteetako jardunarekin gustora gaudela ikusi dugu. Beraz, lerro bera jarraituko dugu. Hori bai, protokolo feminista indartu behar da eta orain jai feminista aldarrikatzen dugu, parekidea beharrean. Bost eguneko egitaraua prestatzen dihardugu, ekainaren 21etik 25era. laz arrakasta eduki zuen munduko janarien pintxo-potea berriz egingo dugu, 23an herri-bazkaria, kontzertuak, elektrotzaranga, presoen aldeko bazkariaren aurretik marianito artean musika jarriko duen DJ-a, jolasak... Eta aurten arratsaldeko egitaraua indartzen saiatu gara, eguna gehiago aprobetxatzeko eta umeak kontuan hartzeko.

- Arazorik izan duzue egitaraua prestatzeko orduan?

Beti jartzen dizkigute trabak. Txosnak barrakak jartzen diren tokian kokatzea da gure helburua. Beti proposatzen dugu hori, baina ezer ere ez. Bestetik, Udalak diru-laguntza ematen digu, nahiko murrizta, baina aurten bikoiztu egin digute. Harrituta geratu gara, baina ondo. Gainera, aurten soinu-teknikari berriak izango ditugu eta pozik gaude, aurreko urteetakoak oso txarrak eta ganorabakoak zirelako.

**- Hilabeteetako lana egiten duzue bost eguneko egitaraua osatzeko. Nola antolatzen zarete?**

Lehenengo bilera irekian lan-taldeak antolatzen ditugu, bakoitzak nahi duena egin dezan. Lan-talde bakoitzak bere modura egiten du lan eta barixakuetan bilera irekiak egiten ditugu. Aurten 'talde-motorra' sortu dugu, lan-taldeen jarduna dinamizatzeko. Ondo koordinatzeko eta ikuspegi orokorra mantentzeko balio digu.

- Lan handia da, baina prestaketan ere ondo pasatzeko aukera izaten duzue?

Bai, noski! Lagun arteko giroa dago taldean. Gainera, bidean jende ezberdina ezagutzen dugu. Normalean zure kuadrillakoekin sartzen zara taldean, baina beste jende askorekin elkartzeko aukera sortzen da.

- Oraindik jende berria sartu daiteke taldean?

Bai, beti animatzen dugu jende berria etortzeko. Barixakuetan, euririk egiten ez badu, Txantxa-Zelain batzen gara, bestela Deporren.

**SUKALDEAK
ALTZARIAK
KOLTZOIAK**

Ibarkurutze, 5
943 20 37 15

Karlos

www.etakitto.eus

WEB

**ALBISTEAK
AGENDA
ARGAZKI
BILDUMAK
BIDEOAK**

Hilaren 31ra arte eska daitezke **Gazteak Auzolanean** dirulaguntzak

GAZTEAK AUZOLANEAN IZENENKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA EGIN BERRI DU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK, gure probintziako gazteei taldeko proiektuak garatzen laguntzeko asmoz. Deialdian 18-30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte, gutxienez hiru kidek osatutako talde gisa. Hala ere, taldeak ezin izango dira elkarte edo enpresa modura erabiltzekoak izan eta, hortaz, ez dute nortasun juridikorik izango.

Egitasmoek, berriz, hiru baldintza bete beharko dituzte. Batetik, irabazi asmorik gabekoak izatea. Horrekin batera, urtebetean garatzeko modukoak izatea. Eta, horrez gain, jarraian aipatzen diren arlo hauetako batean edo batzuetan oinarritutakoak izan beharko dute: proiektu artistiko, kultural nahiz komunitarioak; ingurunearen zaintza eta jasagarritasuna aintzat hartzea; genero-berdintasuna, euskera, kul-



turartekotasuna, elkartasuna eta beste alorretan oinarritutako gizarte edo komunitatea eraberritzeko proiektuak.

Gazteak Auzolanean diru laguntzei esker lor daitezkeen diru kopuruaren gehieneko zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da eta gutxienezkoa, berriz, 1.500 eurokoa. Bestalde, diru laguntza hauen kopuru osoa 10.000 eurokoa da.

Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da. Informazio gehiagorako gipuzkoa.eus helbidean, gazteriari eskeinitako atalean begiratu daiteke. Horrez gain, zalantzak argitzeko 900110111 telefono zenbakira deitu daiteke (astelehentik barixakura, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era) edo gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus helbidera idatzi.

**18-30 URTE DITUZU?
TALDE EGITASMO BAT GARATU
NAHI? MUGITU ZAITEZ!
ETA ERREALITATE BIHURTU!**

**AUZOLANEAN
LAGUNTZAK**

Maiatzaren 31a arte |

Ingurumenaren Mundu Eguna EIBARREN

EKAINAK 4 / 5

ARGITU TAILERRAK:
“Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasunean irabazteko”
Ekainak 4, 18:30, PORTALEA (ikastaro gelan)
 Euskaraz eta gaztelaniaz / Ordubeteko iraupena
 Informazio osagarria: www.gipuzkoaingurumena.eus/es/argitu
 OHARRA: tailerra egiteko 5 lagunek baino gehiagok eman behar dute izena

Izen-ematea: ekainaren 3ra arte
gema@izadi21.eus / 628 532 248


HITZALDIA: “Eibarko ondare naturala”
Ekainak 5, 18:30, PORTALEA
 Hizlaria: Leire Paz (EKOLUR Asesoría Ambiental SLL)
 Euskaraz // Ordubeteko iraupena

Gipuzkoako Foru Aldundia
 Ingurumeneko eta Osoa
 Hiri-Ingurumeneko Departamentua

OSAN
 INGURUMENA

OSAN
 OSAN

EIBARKO EBALA



RAI MUÑOZ. "Udaberria Eibarren".



Iñaki Errazkin nagusi aurreko domekako kadeteen proban

164 txirrindularik irten zuten III. Eibarko Txirrindularitza Elkarteko Sarian eta bakarrik 90 helmugaratu ziren aurreko domekan neguko eguraldiarekin jokaturako lasterketan. Kadeteen mailako probak, hasieratik amaierara, euria izan zuen protagonista; hala ere, ez zen erorketa handirik izan lasterketan. Hogei bat laguneko taldean jokatu zen azken esprinta Urkizun eta Donosti Berri Txirrindulari Eskolako Iñaki Errazkin izan zen azkarrena, Viveros San Antoneko Ander Altuna eta Dinuyko Haritz Seinen aurretik. Ordubete eta 41 minutu behar izan zituzten ibilbidea osatzeko. Viveros San Antonek irabazi zuen taldekako sailkapena, Gama-Scaniako Igor Iparragirre izan zen lehiakorrena eta Viveroseko Kimetz Etxabe Debabarreneneko onena.

Inoiz baino borrokatuagoak izango dira Gipuzkoako Txapelketako biharko finalak

Gipuzkoako 50. hiru-txirlo txapelketa azken jardunaldira iritsiko da bihar Elgetako bolatokian eta parrekoak ere han erabakiko dira. Aurreko zapatuan 68 bolarirekin Lasturren jokaturako tiraldian, Asola Berriko Bittor Astigarraga izan zen irabazlea, sei txirlorekin, Sergio Rodriguez taldekideak jarraitu zion bostekin, eta laukin geratu zirenen artean izan zen Arkaitz Rodriguez. Sailkapen orokorrean Elgoibarko San Miguel bolatokiko Angel Ibarluzea eta Ganix Rodriguez eibartarra daude berdinduta, 41 txirlorekin, eta euren artean irtengo da txapeladuna, hirugarrena zortzi txirloro dago-eta. Lortutako garaipenarekin, Bittor Astigarraga laugarren postura igo da eta, urtero lez, onenen artean izango da oraingoan ere. Emakumezkoetan gauzak argiago daude eta Carmen Cordero azpeitiarra da nagusi, sei txirloko aldearekin. Taldeka Asola Berri burua hartu du eta bi txirloko aldea kentzen dio San Mi-

Urkiko lehen taldea Gorengoen mailara igotzeko lehian

Erregionaleko 1. mailan jokatzeko duen Urkiko lehen taldeak Oartzuni 6-0 irabazi zion azken jardunaldian eta 3. postuan amaitu du igoera faseko ligan. Orain maila igotzeko kanporaketa jokatu du Danenaren aurka, bi partidutara. Kadete mailako lehen taldeak, bestalde, lehen postuan amaitzeaz gain, maila igotzea lortu du eta orain Arrasate beste multzoko irabazlearekin aurka jokatu du txapelaren bila.



Electricidad Bengoakoek ondo ospatu zuten liga irabaztea

Eibar Eskubaloiko nesken infantil mailako Electricidad Bengoako taldeak aurreko asteburuan ospatu zuen, Kili-Kili egindako bazkariarekin, euren mailako liga irabaztea azken denboraldian. Jokalariak eta euren gurasoak talde-argazkia ere atera zuten Ibar-kurutzeko iturrian.



Bittor Astigarraga eibartarrak irabazi zuen Lasturren.

gueli, Lastur hirugarrena 25era dagoen bitartean. Bikoteka Alex Campos eta Ganix Rodriguez bigarren daude, San Miguelekoengandik bost txirloro. Eta Asola Berriko beste hiru ordezkari onenak dira euren mailatan: Astigarraga beteroan, Kepa Rodriguez alebiretan eta Josu Urkia benjaminetan. Biharko jardunaldia 17:00etan hasiko da, zapatuero moduan, baina gaur ere izango dira jaurtialdiak, 22:30etik aurrera.

Eibar Igerixan-ekoek egunpasa antolatu dute Gamarran

Eibarko igeriketa taldeak egunpasa antolatu du ekainaren 9an Gasteizko Gamarrako igerilekuetara. Bazkide guztiek eman dezakete izena, 10 euro ordainduta. Goizeko 09:00etan elkartzeak gara Bossa tabernan eta, "urtero moduan, bazkaria, merienda, bainujantzia, toaila eta eguzkiko krema bakoitzak eraman beharko du". Itzulera arratsaldeko 19:45ak aldera egingo dute. Kamiseta banaketa ere egun horretan egingo da.

Gaur amaituko da Eibar Rugby Taldeko udalekuetan izena emateko epea

Eibar Rugby Taldeak udaleku elebidunak antolatu ditu aurten, euskaraz eta ingelesez jarduera ugari egiteko aukera eskainiz. Gaur da matrikulatzeko azke eguna (epea ez badute luzatzen) eta hainbat programetan eman daiteke izena: uztailaren 1etik 15era (150€), uztailaren 12tik 26ra (150€), anai-arrebak (100€) eta uztailaren 1etik 26ra arte (250€). Udalekuetako ordutegia honako izango da: astelehenetik eguenera goizeko 09:30-



etik arratsaldeko 17:30ak arte, eta barixakuetan goizez bakarrik (09:30-13:30). Matrikulazioa emailaz eta telefonoz egin daiteke: eibarugby@eibarugby.com eta 627959658.

Bestalde, Eibar Rugby Taldeko emakumeek Rugby Sevens Challenge jokatuko dute asteburuan Valentzian. Euskal Liga irabazi eta Ohorezko B Mailara igo ondoren, eibartarrek Erreginaren Kopan jokatzeke txartela lortu nahi dute txapelketa honen bidez. CRC Pozuelo, CD Arquitectura, Universitario de Sevilla, CP Les Abelles, Getxo RT, CAU Valencia, Pingüinas Rugby Burgos, Shamrock RC eta CR El Salvadorren izango dira txapelketa beste taldeak. Zazpi jokalarirekin jokatzen den modalitatea da seven errugbia, beraz, jokalariz azkarrek, indartsuek, eta pase eta plakaketa ona dutenek osatuko dute taldea.

Azkena Adahi eta JMR Erreformak foball-zaletuen Kopako finalean

Azkena Adahi ez da liga irabaztearekin konformatzen eta bihar, 10:00etatik aurrera, Kopa irabaztera zelaituko da Unben JMR Erreformak taldearen aurrean. Aurreko zapatuan jokatutako finalerdietan, liga txapelkunak 3-1 kanporatu zuen La Jara R. Hiru, Kepa (bitan) eta Larreategiren golek; JMR Erreformak 6-2 irabazi zion Ipur Sagardotegiari beste finalerdian, Ousname, Hichan, Eneko, Yosmar, Jagoba eta Batiquiren gol banarekin.

Peña Txinberaren 20. urteurrenarekin IV. Gipuzkoa Zurigorria ospatuko da Eibarren ekainaren 8an

Gipuzkoa Zurigorriaren IV. edizioa Eibarren egingo da, egun osoko egitarauarekin, eta Peña Txinberak eguna aprobetxatuko du bere 20. urteurrena ospatzeko egunaren amaierarako antolatutako hiru kontzertuekin. Ekainaren 8an 11:00etan txupinazioa jaurti eta hamaitaketa eskainiko dute Peña Txinberaren lokalean. 12:00etan Untzagako graden aldean umeentzako gaztelu puzgarriak egongo dira, eta 12:30etik 14:00etara trikipoteoa egingo dute kaleetan, Eibarko Trikitilari Gazteak lagunduta. 14:15ean argazki ofiziala aterako dute Untzagako gradetan eta, jarraian, bazkaltzeko ordua helduko da, 14:30ean karpan. Arratsalderako ere badute egitaraua: 16:00etan

sari banaketa egingo dute eta 16:30ean herri-kirolen erakustaldi mixtoa. 18:00etan elektropoteoa hasiko da kaletik Ustekaberekin, eta 19:30ean pintxoak izango dituzte zain Txinberako guztiek Slow kafetegian. Bestalde, Peña Txinberaren 20. urteurrena ospatzeko, hiru taldek osatutako musika jaialdia izango da: kontzertuan Bilboko Los Chimberos (20:00etan) eta Eibarko Eirband (22:00etan) eta Mugi Panderoa (00:00etan) hartuko dute parte.

Untzagako karpan egun horretan egingo duten bazkarirako kopuru mugatua izango da eta izena 943-127250 telefono zenbakira deituta eman dezakete Athleticzaleek. Helduen menua (onddo pudinga,



Aitor Alfonso kulturistak urrezko lau domina lortu ditu Galizian

Eibarko kulturistak Texeiro Galiziako herrian jokatutako Espainiako Iparraldeko txapelketan hartu zuen parte aurreko zapatuan, eta lau aldiz izan zen txapeldun: talla altuko mens physique, talla altuko klasikoan, kulturismo klasikoko absolutuan eta, azkenik, irabazle guztien artean jokatutako mens physiqueko absolutuan.



pipar beteak, txerri masailak saltsan, flana izozkiarekin, kafea eta ura, kiantza ardoa eta sagardoa) 25 eurotan izango da eta umeena (makarroak tomatearekin, solomoa patatekin, izozkia eta ura) 10 eurotan. Dirua S07 2095 5035 019118361711 kontu korrontean sartu beharko dute maiatzaren 31 baino lehen eta "hor aipatu beharko dute zenbat izango diren bazkaltzen eta peñaren izena". Informazio gehiagorako: txinbera@hotmail.com

Deportiboko atletak bikain jardun zuten Gasteizen eta Zumarragan

Sei domina ekarri zituzten Gasteizen jokatuako 18 eta 20 urtetik beherako Euskadiko txapelketan eta beste hiru Zumarragan lehiatuako eskola mailako proba konbinatuetan. Euskadikoan lau urrezko eta bi zilarrezko irabazi zituzten eibartarrek: Carlitou Mendyk txapela jantzi zuen jauzi hirukoitzean eta bigarren izan zen luzerakoan, Garoa Magunazelaia onena izan zen xabalinarekin eta bigarren disko jaurtiketan, eta Mikel Martinezek (xabalina) eta Aratz Mora (pisu jaurtiketa) nagusitu egin ziren proba horietan. Zumarragan, bestalde, Imanol Egidazu eta Miren Urizar onenak izan ziren infantiletan eta Ugaitz Fernandez alebinetan. Deporreko beste zazpi atleta onenen artean izan ziren, baina domina barik.



Urbatek Orbean du gaur EH-ko ligaren finaleko partidua

Leioan azken unean ihes egin zien eibartarrei partiduak, amaieran 13-11 galtzeko Askartza Claret-ekin. Gaur itzulera-koa jokatu dute Orbeako igerilekuan, 21:45ean hasiko den neurketan. Euskal Herriko Ligako finala denez, aukera bikaina izango dute zaletuek taldea animatzeko. Emakumezkoen taldeak aurkari bera du Euskal Herriko ligaren 3. eta 4. postuak erabakitzeko borrokan, eta aurreko asteburuan 8-4 gaititu zituzten bizkaitarrak Orbean. Oraingoan Leioan ere aha-legenduko dira gehiago izan eta 3. postua bereganatzen.

“Panpo” gogoratu zuten Aixolako urtegiari

Aurreko zapatuan Felix Ormaetxea “Panpo” memorialaren 9. edizioa egin zen Aixolako urtegiari, 20 bat lagun elkatu goizean goiz eta arratsaldera arte irauin zuen ekitaldian. Maratoia 08:00etan hasi zen eta maratoi-erdia bi ordu geroago; hori bai, parte-hartzaile bakoitzak nahi beste buelta egiteko aukera izan zuen. Antxitxiketaldia amaituta, 12:00etan lore-eskaintza egin zitzaion eta jarrera Azitain erretegiara joan ziren bazkaltzera.



Deporreko mendizaleak denboraldiko egutegia betetzen

Aurreko asteburuan Artzaintza Naturbi-dearen hirugarren etapa bete zuten, Urturi eta Oteo lotuz. Irteera horretan aurrekoetan baino lagun gutxiago batu ziren ia 20 kilometroko ibilbidea egiteko, 416 metroko desnibelarekin. Goizeko eguzkiak “*euria eta haizeari eman zion pasoa; hala*

ere, ibilbidea oso polita egin zitzaigun”. Amaitzeko, Oteoko elkarte batean bazkaldu zuten.

Bestalde, astebete lehenago (hilaren 11n) bederatzikide osatutako taldeak Artazuleko arroila jaitzi zuen, horiek bai “*eguraldi bikainarekin*”. Deportiboko Mendi Taldeak horrelako ekintza bat urtero antolatzeko asmoa du: “*Interesatuek Deporren lortu dezakete informazio gehiago*”.

Data aldaketak

Ekaineko mendi-egutegian, bestalde, lehenengo bi ekitaldien datak elkartrukatu egin dituzte. Horrela, hilaren 8rako iragarrita zegoen Iparralderako irteera 1era aurreratu dute: Arrosatik Irulegiraino joango



dira, tartean Jara mendigaina (812 metro) egiteko. Eta egutegian 1erako iragarrita zegoen Eibarko Itzulia eta Finalista Eguna astebete atzeratu dituzte, 8an egiteko.





SILVIA FORMENT
(Alluiz Natura)

“Gatzatua Idiazabal gazta egiteko prozesuaren lehen pausua da”

Martitzenean ortu bertikalei buruzko ikastaroa eskaini ondoren, gatzatua egiten irakatsiko du Alluiz Natura baserri-eskola eta landa-garapen enpresako Silvia Formentik. Gatzatua egiteaz gain, Euskal Herriko gastronomiaren ikur honen inguruko historia eta kulturaren berri emango du. Tailerra Berbetan programaren barruan egingo da maiatzaren 28an 19:00etan ‘...eta kitto!’-n.

- Zer behar da, nahita nahiez, gatzatu bat egiteko?

Guretzat gatzatua Idiazabal gazta egiteko prozesuaren lehen pausua da. Hamar pausu jarraitu behar dira Idiazabal gazta lortzeko eta, lehenik, gatzatua lortu behar da. Hainbat gauza hartzen ditugu kontuan gatzatua sortzeko orduan. Batetik, natura, ardi latxarekin egiten den produktua delako. Bigarrenik, jaiotzen direnetik bi hilabete eduki arte, arkumeez amaren esnea bakarrik edaten dute, eta lehen digestio-prozesuan sortzen den entzima natural baten bitartez esnea gazta bihurtzen da euren sabelean, hau da, gatzatua. Beraz, naturak eskaintzen dizkigun aukerekin arkumearen sabelean gertatzen dena lortzen saiatzen gara. Hirugarrenik, gatzatua nola eta noiz egiten hasi ziren ikusten dugu. Historialariek diotenez Neolitoan egiten hasi ziren gatzatua egiten. Orduan, sasoi hartan erabiltzen zituzten tresnekin gatzatua egingo dugu.

- Zer egin ahal izango dute ikastaroan parte hartzen dutenek?

Bakoitzak gatzatu bat egiteko aukera izango du eta esnea prestatzen dugun bitartean gatzatuaren inguruko kontuak azalduko dizkiegu: noiz eta nola sortu zen lehenik, zergatik egiten dugun gaur egun, zein osagai behar dugun, eta abar.

- Nola hasten da gatzatua egiteko prozesua?

Parte-hartzaileei legar naturala emango diegu usaintzeko, hortik hasten delako prozesua. Usaintzen emango diegu eta gazta hondatu baten usaina daukala ikusiko dute, baina hartzidura nondik datorren ulertzeko balio du.

- Euskal Herriko gastronomiaren ikurra da, baina hemen-dik kanpo ere gatzatua egiten da?

Ardi latxarekin egiten den produktua da, hemen bakarrik dugun ardi arraza batekin. Biodibertsitatearen ikuspuntutik oso interesgarria da, balorea ematen diogulako ardi latxari eta ez beste arrazaren bati. Gatzatua beste modu batean egin daiteke, osagai kimikoekin edo kaltzioa duen esnearekin, baina ez da gauza bera izango. Guk naturan gertatzen dena errepikatzen dugu, osagai naturalak erabiliz.

- Norberak egindako zerbait izateak balioa ematen dio produktuari?


Noski! Gainera, tailerrean egingo dugun gatzatuak jatorri-deitura izango du. Gatzatua Idiazabal gaztaren sortze-prozesuaren pauso bat bezala ulertzen dugunez, prozesu horren lehen 20 minutuetan lortzen dena sortuko dugu ikastaroan. Hala ere, asko dago horren inguruan berba egiteko eta ordubete izango dugu den-dena kontatzeko.

Fernando Retolaza eta Roberto Herrero garaile Fran Salazar argazki lehiaketan

Eskozia La Bravak antolatutako eta Eibar KE-k eta Komat SL-k babestutako I. Fran Salazar Memoriale argazki-lehiaketako irabazleek aurreko domekan, Eibar-Bartzelona partidua hasi au-



retetik, jaso zituzten sariak Ipuruako presidentzia-palkoan. Fernando Retolazarena izan zen argazki onena II. Iker Amutxastegi Sarian (umeendako abono bat jaso zuen hurrengo denboraldira) eta Roberto Herrero irabazi zuen lagunartekotasuna hobeto islatzen zuen irudiarena (argazki kamara bat jaso zuen). Santiago Entrenak, Virginia Arakistainek eta Luis Salazarrek osatu zuten epaimahaia.



20. "Asier Errasti" Film Laburren Jaialdirako deialdia egin dute

Udalak eta Plano Corto kultur elkarteak 20. "Asier Errasti" Film Laburren Jaialdirako deialdia egin dute. Aurreko edizioetan bezala, lehiaketan bi atal, fikzioa eta animazioa bereiziko dituzte eta lanen gehienek iraupenak 20 minutukoa izan beharko du.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek internet bidez eman beharko dute izena, eibar.eus Udalaren web orrian lehiaketei eskeinitako atalean, bertan eskuragarri dagoen formularioa beteta eta eskaerari dokumentu hauek erantsita: film laburraren fotograma bat (esku-orrirako) eta laburmetraiaren fitxa teknikoak. Lehiaketara aurkeztzen diren lanak ere helbide horretatik igo beharko dira. Izena emateko epea astelehenean zabaldu zuten eta uztailearen 17ra artekoa izango da eta jaialdia, berriz, azaroaren 2tik 9ra bitartean burutuko dute.



Baratze bertikalak prestatzen ikasteko saio arrakastatsua

Martitzenean Baratze Bertikalak tailerra egin zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian programaren baitan. Parte hartzera animatu zirenek marrubiak eta beste landare batzuk nola hazi ikasteaz gain, horretarako ontziak nola prestatu ere ikasi zuten, Alluitz Natura baserri-eskola-ko Silvia Formentik emandako aholku eta azalpenei esker. Ikastarora joandakoek, lorazaintzan trebatzeaz gain, ederto pasatu zuten eta, ikasitakoa praktikan ipintzeko, etxera landare eta guzti bueltatu ziren, gainera.



ARRATE URZURIAGA BOLLAR

«Zuk erakutsitako bizi gogo eta indarrarekin
zuk emondako maittasun eta irribarriarekin
zainduko dittut nik zure etxeko larrosa bi»

JONE



Armagineen dokumentala You Tuben

Eibarko Armagintzaren Museoak 'Maestros Armeros: artesanos en Azul', herriko armaginei buruzko lan dokumentala ipini du eskuragarri YouTuben. Nerea Alustiza historialariaren laguntzarekin egin duten ikus-entzunezkoan Aguirre y Aranzabal, Grulla eta Garbi tailerretako langileak elkarrizketatu dituzte.

Pagatxaren zine-foruma

Datorren barixakuan, 19:00etan, Pagatxa emakume elkartearen eskutik zine-forum saioa egingo da Portalean (areto nagusian). Izaskun Rodriguez Elkorok gidatuko duen saioan Celia Rico Clavellino zuzendariaren "Viaje al cuarto de una madre" pelikulan sakontzeko aukera egongo da. Sarrera doan izango da, joan nahi duten guztiertzat.



Ikasturte amaierako erakusketa

Dibujo eta Zeramika udal eskolak ikasturte amaierako erakusketa zabalduko du datorren egunean Portalean. Ikasturtean zehar eskolako ikasleek egin dituzten lanak bilduko dituen erakusketa astelehenean domekara bitartean zabalduko dute, 18:30etik 20:30era.

Argazkilaritza Maiatzean kalean izango da asteburuan

Hilabete osorako egitaraua prestatu dute aurten ere Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek. Erakusketak maiatzaren amaiera arte egongo badira ere ikusgai, bihar argazki topaketak izango dira kalean, Untzaga plazan zehazki. Arratsaldeko 17:00etan hasi eta 21:00etan amaituko den ekitaldian, erakusketa kolektiboa aire librean, estudioko erretratuak ateratzeko aukera (doan), Kamera Minu-

tularia eta argazki artistikoak saltzeko stand-a elkartuko dira, lau aukera bikain argazki munduaz gozatzeko. Argazkilaritza Maiatzean-eko egitaraua oraingoan ekainean amaituko da, Harvey Wang EEBBtako argazkilaria ospetsuak eskainiko duen argazkilaritza tailerrarekin. Portalean emango du, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, eta pelikula emanaldiaren ondoren hizaldi-solasaldia izango da.



Kamera Minutulariak aukera polita eskaintzen du beste sasoi bateko argazkilaritza motara itzultzeko.



SANJUANAK EIBARREN 2019

Aukeratu dute aurtengo Sanjuanak iragartzeko kartela

Sanjuanak Eibarren kartel lehiaketako epaimahaiak Alfredo Leon Mañuren "Fiesta geometrica" izenburuko lana aukeratu du aurtengo San Juan jaiak iragartzeko. Umeen artean, berriz, 11 eta 14 urte bitarteko mailan irabazlea Martina Garate izan da, "Festa bira" kartelarekin eta 10 urtera artekoen mailan saria Andoni Olcoz Gerardik irabazi du, "Badator danborrada" izenburuko lanarekin. Lehiaketaren edizio honetan 64 parte-hartzaile egon dira: 17 helduen mailan, 29 lan aurkeztuta; 11-14 urte bitarteko mailan 28 lan lehiatu dira eta 10 urtera artekoen mailan, berriz, 19.

Atzo hasi ziren Amañako danborradetarako entseguak

Amañako jaietan egingo diren danborradetarako entseguak atzo hasi ziren eta, aurrerantzean, astero egingo direla jakinarazi du Jesus M^a Olmedo Nazabal "Kata" arduradunak. Entseguak Amañako herri ikastetxean izango dira, eguenetan, 19:00etan umeentzat eta 20:00etan helduentzat. Danborradetan parte hartzeko asmoa dutenei ahal duten guztietan parte hartzeko deia egin dute, "ikasteko pieza berriak daude eta". Horrez gain, etxean nagusien danborradako erropak (txalekoak eta txapelak) dituztenei horiek bueltatzeko eskatu nahi diete, "aurten ez badute parte hartu behar beste batzuek erabili ahal izateko". Bestalde, umeen danborradan auzoko haur guztiek ez zik Amañarekin loturaren bat dutenek ere parte har dezakete-la azaldu dute.



Txistuaren musikari eskainitako plataforma digitala martxan

Sare sozialak baliatuz, martxoaren 23an martxan ipini zuten txistuaren musika hedatzeko plataforma digital berria. Plataformak, txistuaren musikarekin batera, beste instrumentu askoren musika zabaltzeko aukera ematen du eta erabiltzeko oso erreza da: newtxistu.simdif.com helbidera sartuta, Jose Miguel Laskurain egilearen aurkezpena eta intereseko hainbat gairazuzenean joateko sarbideak ikusten dira. Edukien artean, besteak beste, MP3 formatoan doan jaitxi eta gorde daitezkeen doinuen bilduma dago. Aipatutako piezak txistuarekin jotzeko modukoak dira eta estilo aldetik aukera zabala dago. Partiturak, txistua jotzen ikasi nahi dutenentzat on line egiteko ikastaroa eta beste hainbat gauza ere eskaintzen ditu atariak eta, gainera, astero eduki berriak sartzen joango dira.





“Bakarlarren jaialdia” gaur ELGOIBARREN

Gaur, arratsaldeko 19:30etik aurrera, “Bakarlarren Jaialdia” dantza ikuskizuna eskainiko dute Kalegoenen (euria egiten badu, Maalan), aurrekuarekin egingo duten hitzorduan. Hor izango dira Legazpin I. Dantzari Gazteen Txapelketa Absolutuaren finalean parte hartu duten dantzari guztiak, tartean Jone Gil eta Markel Goenaga elgoibartarrak. 18 dantzarik hartu zuten parte lehiaketa horretan eta Billabonako Gorka Duranek irabazi zuen. Modu horretan amaituko dute denboraldia Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak.



SORALUZEKO Musika Eskolan ate irekiak

Bihar goizean parez pare zabalduko dituzte Soraluzeke Musika Eskolako ateak, asmo hortekin antolatu duten Ate Irekien jardunaldian. Nahi duten guztiak eskola ezagutzeko, irakasleekin berba egiteko eta instrumentuak probatzeko aukera izango dute. Gainera, jardunaldien harira herrian zehar kalejira antolatu dute, 10:30ean hasita. Ate Irekiak, berriz, 11:00etan hasiko dira, 13:00ak aldera amaitzeko eta, jarraian, beste kalejira batekin itxiko dute egunerako prestatu duten egitaraua.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Amaia Aranegi Lasuen. 57 urte. 2019-IV-12.
- Flora Gomez Tamargo. 85 urte. 2019-IV-21.
- Agustin Caballero De Jesus. 82 urte. 2019-V-7.
- Ernesto Agirre Abasolo. 90 urte. 2019-V-16.
- M^a Teresa Fernandez Etxeberria. 88 urte. 2019-V-16.
- Jose Antonio Soroa Oroz. 88 urte. 2019-V-16.
- Patrocino Medina Lope. 92 urte. 2019-V-19.
- Antonio Martin Martin. 79 urte. 2019-V-20.
- Mercedes Prieto Mateos. 66 urte. 2019-V-21.

jaiotakoak

- Nur Bensliman Bensliman. 2019-V-13.
- Eneko Retana Araujo. 2019-V-14.
- Joel Amado Puga. 2019-V-16.

farmaziak

- Barixakua 24
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 25
EGUNEZ **Azkuo** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 26
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Astelehena 27
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 28
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 29
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 30
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 31
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

3	7	6	4	9	5	2	1	8
9	4	1	6	8	2	5	3	7
5	2	8	1	7	3	9	6	4
7	6	5	2	1	8	3	4	9
1	8	9	3	6	4	7	5	2
4	3	2	9	5	7	1	8	6
6	5	3	7	4	9	8	2	1
8	1	7	5	2	6	4	9	3
2	9	4	8	3	1	6	7	5

		1		3			5	
				5			2	4
	6			4			8	
	8	2					1	
6								7
	3						5	2
		6			9		7	
9	4	7			3			
	5			4		9		

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 24

MUSIKA AUZOZ AUZO

18:30. DJ Xaibor. Urkizuko parkean.

BILERA

19:00. Irekia, Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaian (eguraldi txarra eginez gero, Arrate Kultur Elkartean, 1. pisuan).

Zapatua 25

SASKIBALOI JAIA

10:00/15:00. Saskibaloi partiduak eta hainbat ekitaldi. Untzagan.

TOPAKETAK

11:00. Eibarko Topaketa Feministak. Militantzia feministaren inguruko mahai-ingurua. Kultun.
13:00. Mural feminista. Arraguetan.
14:30. Bazkaria, Biziminaren eskutik.
16:00. Kafe-tertulia. Monologoa, Nerea Arriola Urberuagaren eskutik. Eibarko Bizikleta Plazan.
19:00. Poteo ekintzaile eta musikatua.
21:30. Argazkia Gaztetxean.
22:30. Akelarrea.
23:00. DJ Gaua (ez mistoa).

ARGAZKIA MAIATZEAN

17:00/21:00. Topaketak Klean, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik: erakusketa kolektiboa aire librean, estudioko erretratuak doan, kamera minutularia, argazki artistikoak saltzeko stand-a. Untzagan.

KONTZERTUA

19:00. ZZTorpes taldearen kontzertua. Gautena elkarteari laguntzeko enkantea. Txorizo-pintxoan salmenta. Ametsa tabernan.

KONTZERTUA

23:30. Polybius. Ez Dok tabernan.

Domeka 26

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALIK

16:00. Urkizu, Amaña eta Arrateko Andra Mari herri ikastetxeetako patioak zabalduko dituzte, haurrek jolasteko.

Astelehena 27

IKASTEN

10:30. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatua eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 28

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

19:00. Gatzato tailerra, Alluitz Naturaren eskutik, Berbetan programaren barruan. ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuarterean).

Eguaztena 29

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

DANBORRADA KO ENTSEGUA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Bittor Sarasketako 7an (Beistegi eraikinean).

Eguena 30

ESKOLAKO AGENDA 21

10:15. Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan, ikasleak udal ordezkariekin bilduko dira ikasturtean landutakoa azaltzeko. Udaletxean (Udalbatza aretoan).


KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua **18:00**etan hasiko da). Untzagako jubilatua etxean.

19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

AMAÑAKO DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Amañako herri ikastetxean.



ZZ Torpes taldeak bihar joko du Ametsan, 19:00etatik aurrera.

Erakusketak

Maiatzaren 26ra arte:

- **JUAN MIGUEL ALBA MOLINA, ANDRES INDURAIN ETA LUIS CAMACHOREN ARGAZKIAK** (Portalea)
- **JOSE IGNACIO DE CASTROREN ARGAZKIAK** (Topaleku)

Maiatzaren 31ra arte:

- **KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN ARGAZKIAK** (El Ambigú eta Portalea taberna)
- **ARGAZIAOLA SARIA 2018KO ARGAZKIAK** (Deportibo taberna)
- **EMILIA VALENCIAREN ARGAZKIAK** (El Corte Inglés)
- **NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA** (Untzagako Jubilatua Etxea)

Ekainaren 2ra arte:

- **"EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942"** (Eibarko Armagintza Museoa)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **MARKELI**
Gaur 5 urte betetzen
dozuz-eta! Musu
erraldoi bat etxeko
guztien partez!



Zorionak, **MARA**,
hillaren 14an 6 urte
bete zenduaz-eta.
Musu haundi bat
etxekuen partez.



Zorionak, **AITOR**,
gaur 6 urte egitten
dozuzelako! Musu
potolo bat etxekuen
partez!



Zorionak, **IBAI**,
maiatzaren 30ian
10 urte beteko dozuz-
eta. Musu haundi bat
etxeko guztien partez.



Zorionak, **MALEN**,
printzesa, hillaren
29xan 4 urte egingo
dozuz-eta. Musu
haundi bat Eneko,
ama eta aittaren partez.



Zorionak, **SABINA**, atzo
7 urte bete zenduan-
eta. Patxo mordua
etxekuen eta, batez be,
Antonen partez.



Zorionak, **JANIRE**,
aurreko domekan
9 urte egin zenduaz-
eta. Gehixen maite
doguna zara! Musu
bat gurasuen partez.



Zorionak, **IZARO**,
sorgintxu! Bixar
7 urte! Musu haundi
bat etxekuen eta,
batez be, Enekoren
partez. Ondo ospatu!



Zorionak, **LAIA** (martxuan 4 urte
betetakua) eta **EKHI** (gaur 7 urte
egitten dozuz). Musu haundi bat
etxekuen partez.



Zorionak, **BEGOÑA** eta **ROBERTO**,
zuen 50. urteurrenien. Oin arte
bezain zoriontsuak izaten jarraitu!



Zorionak, **CLAUDIA!!!** hillaren
22xan gure etxeko printzesak
7 urte bete zittuan-eta. Musu
haundi bat amama, aitxitxa,
ama, aitta eta, batez be, zure
anaixa JON-en partez.

Hauteskunde ale berezia, astelehen goizean kalean

Domekarako, maiatzaren 26rako, deituta dauden Udal, Batzar Nagusi eta Europako Parlamenturako hauteskundeak direla-eta, betiko lez ...eta kitto!-k jarraipen berezia egingo dio egunari, astelehen goizean kiosko, okindegi eta bestelako saltokietan doan banatuko den Hauteskundeetako Ale Berezian kaleratzeko. Ale horretan, Eibarko emaitzak alderdi politikoetako ordezkarien erreakzioak eta bestelako informazioa jasoko dugu.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komun. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Pisua alogagai Donostiako Antigua auzoan, abuztuaren 15etik irailaren 15era. Hondartzatik 5 minutura. 55 m². Berriztuta eta igogailuarekin. 2 logela, egongela-jangela-sukaldea, komuna eta Wifia. Hamabostaldia 1.600 eurotan. Tel. 669-027734. Angel.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 666-197831.
- Pisu zoragarria alogagai Donostian, ekainaren 1etik irailaren 30era. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. 3 igogailu eta garajearekin. Tel. 689-232882. Judith.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren irailetik aurrera. Lau lagunentzako. Tel. 634-419894.
- Pisua alogagai Eibarko Bidebarrieta kalean. 3 logela eta 2 komun. 110m². Altzari guztiakin. 700 euro, garajea aukeran (120 euro). Tel. 607-534881.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde lanetarako. Esperientzia. Tel. 631-950442.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 644-558390.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-250984.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. 10 urteko esperientzia. Tel. 667-034344.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-296098.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Tel. 678-112785.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-003400.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 645-219783. Margarita.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-759507 eta 662-003400.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-759507.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Gizonezko autonomia eskaintzen da banaketak egiteko. Furgonetarekin. Tel. 643-072874.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-843984.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-422256.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-502177.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-532426.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-862059.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776998.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Tel. 602-800266.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-481494.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-504202.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-482203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-835745.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-483249.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 698-438215.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-077157.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 635-189294.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eskarmentu handia eta erreferentziak. Tel. 671-316837.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 688-842791.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 632-552394.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-747039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiria eta 5 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 616-809926.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-247272.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 642-498359.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 678-110861.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-715164.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 665-257468.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Erreferentziak. Tel. 602-380040.

- Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko (sukaldari, kamarera, laguntzaile). Urte askotako esperientzia. Baita etxeko garbiketarako egiteko ere. Tel. 695-243883. Mila-gros.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-689227.
- Mutila eskaintzen da mendian lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 632-725140.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Ziurtagiria eta esperientzia. Tel. 626-407923.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.

4.2. Langile bila

- Ilepaintzailea behar da Elgoibarko ilea-paindegi batean. Egun erdirako. Tel. 943-246225. Nerea.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ekinetik aurrera oinarritzko katalana irakasteko prest dagoen norbaiten bila nabil. Tel. 637-124479.

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da zuzailan LH eta DBH ikasleei erretortzu klaseak emateko. Tel. 688-608922.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez irakasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

- 9 asteko txakurkumea oparitzen da, bere osagarri guztiakin. Lehenengo txertoa jasota. Tel. 626-249512.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Giltzak aurkitu dira Urkizuko parke inguruan. Jabeak Udaltzaingora jo dezake.

6.4. Bestelakoak

- Autoa konpartitzerik? Goizero Eibar-Errenteria 06:45ean. 14:30 inguruan buelta. Tel. 680-626296.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



HEGAZTIAK / AKUARIOFILIA / TXAKURRAK / KATUAK / KARRASKARIAK



Amig@s Tumascota

19^{'71} €

21^{'90} €_{ppv}



Amig@s Tumascota

15^{'92} €

19^{'90} €_{ppv}

tumascota

"Maite dituzunak zaintzen ditugu"

Tel. 943 849 999
Astelehena - Larunbata: 10h - 21h.

www.tumascota.es



ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da.

Soluzio pertsonalatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberritzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

B
www.NewBEE.eu

ESLABANen helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma. 3º ezkerre. ■ Apdo. 160
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Telf.: (+34) 943 820 407 ■ Fax: (+34) 943 820 724
E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com